

Elkartea 43

INFORMAZIO ALDIZKARIA

ESPAÑA
ESPAÑA



FRANKEO
ORDAINDUA
FRANQUEO
PAGADO

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO

Cogoratu 

ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea

Tel. eta Faxa: 945 225 516

01009 VITORIA-GASTEIZ

e-mail: eginez@euskalnet.net

www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean

Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379

20018 DONOSTIA

e-mail: elkartu@elkartu.org

www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea

Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69

48014 BILBAO

e-mail: fekoor@fekoor.com

www.fekoor.com

%100 ean birziklatutako paperean inprimatua

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoez erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetak.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **GIELMAR**
Gipuzkoako Elbarriak Martxan.
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarteak.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoa Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN GURASOEN BIZKAIKO ELKARTEAK.**
- **LEA-ARTIBAIKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PEETSONEN ELKARTEAK.**
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko Haur Minbiziduen Gurasoen Elkarteak.
- **AUXILIA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Integrazioarako Elkarteak.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuro-muskularren Elkarteak.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristau Elkarteak.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.

AURKIBIDEA

Orokorra

Aparkatzeko txartela.....	4
Bilera Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte politiken kontseilari berriarekin.	5
Agurra Inigo Lamarkari eta ongi etorria Ararteko berri	6
Elkartean konfederazioak parte hartuko du mahai instituzionaletan, foroetan eta jardunaldietan.	7
Euskadiko hirugarren gizarte sektorea Lege Proiektua.	7
Familia dekretuak.....	8
Irisgarritasun unibertsala.....	10
Euskadiko etxebizitza Lege berria onartzea	11
Elkartean konfederazioak dituen 12 lehentasunak foru eta toki gobernu berrietarako.....	11

Araba

Elkarte atari berria: www.eginez.org	13
Gasteizko Udal berriari eta bere Alkateari.....	14
Eginaren Eginez elkarteak errekurritu egin du Osakidetzako Lan Eskaintza Publikoa.....	14
Bizilagun	16
Elkarte berria osatu da Araban.....	16
Sexologia eta desgaitasun topaketa.....	17
Topaketa Gasteizko apezpikuarekin.....	18
Bazkideen batzar nagusia egin du Eginaren Eginez elkarteak	19
Auzia Villanueva de Álava / Eskuernagako udalaren aurka	19
Auzia Gasteizko Udaleko aldi baterako kontratazio araudiaren aurka.....	20
Errekurtsoa Gasteizko hiri mugikortasun ordenantzaaren aurka.....	21

Bizkaia

Ekarpenak Laguntza pertsonaleko Dekretuari Bizkaian.....	23
SHARK proiektu teknologikoarekin kolaboratuko du Fekoor federazioak	25
Gizatek: BFAren diru-laguntzak laguntza produktueterako	26
Zainduz 2015: Zaintzaileei laguntzen diegu.....	27
20 udalerrik baino gehiagok aintzat hartu dute Fekoor federazioaren tokiko ordenantza proposamena.....	28
Fekoor federazioak parte hartuko du desgaitasunen foru plana prestatzen	29
Agenda eta jarduerak	31

Gipuzkoa

Elkarturen ikerketa proiektua: Gipuzkoako desgaitu fisikoen egoera	32
Gipuzkoako Desgaituen Kontseilua.....	33
Gipuzkoan bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publiko erregularren araudia.....	34
Kilometroak 2015. Gipuzkoa inklusiboago baten aldeko dekalogoia	35
Donostiako autobus geltoki berria egiteko proiektua	36
Elkartu, sare sozialetan	36
Aparkaldi erregularra, Donostian, desgaituentzat gordetako lekuetan.....	37
DINYPARK proiektu pilotua-Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku plazak kudeatzeko zerbitzua	37
Donostia 2016, Europako Kultura Hiriburuarekiko lankidetzat	38

APARKALDI TXARTELA

Desgaituentzako aparkaldi-txartela emateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak jasotzen dituen estatu mailako araudi berria (**1056/2014 Errege Dekretua**) onartu zen 2014aren bukaeran.

Autonomia Erkidego guztietan lehendik ere bazegoen aparkaldi-txartelei buruzko araudi berezia, eta ondorioz, askotariko arauketa gertatu da. Arauen artean aldeak daude txartelaren erabilerari eta txartela izateak berekin dituen eskubideei dagokienez, eta pertsona beraren egoera bata edo bestea izan daiteke bere bizilekuaren edo joango den tokiaren arabera. Adibidez, **Euskadin, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak arautzen** du desgaituentzako aparkaldi-txartelaren gaia eta eredu komunitario uniformera egokituta dago. Arau horren arabera, **Euskadin udalerriek ematen dituzte txartelak, eta homologatuta daudenez, erabilgarri dira Europar Batasun osoan.**

Aparkaldi-txartelaren erabileran estatu mailan berdintasuna bermatuko duten oinarrizko baldintzak finkatzea da estatuko 1056/2014 Errege Dekretuaren helburua. Horren bidez, mugikortasun urria duten herritar desgaituen segurtasun juridikoa bermatu nahi da, estatuko edozein tokitara doazela. Hortaz, aparkaldi-txartela estatu osoan da baliagarria eta baldintza eta abantaila berdinak ditu, txartela zein Autonomia Erkidegotan eskuratu den kontuan hartu gabe. Desgaituentzako aparkaldi-txartela egiaztagiria da, baldintzak betetzen dituztenek ibilgailua helmuga duten tokitik ahalik eta hurbilen aparkatzeko eskubidea dutela egiaztatzen duen dokumentu publikoa. Berritasunen artean honako hauek eskaintzen ditu:

- Ofizialki aitortutako mugikortasun urria duten pertsoez gain, txartelaren onuradun izan daitezke **ikusmen-urritasuna duten pertsonak** ere (begi onenean 0,1eko edo hortik beherako

ikusmen-zolitasuna dutenak, zuzenketarekin, edo 10 graduko edo gutxiagoko ikusmen-eremu urria dutenak).

- Aparkaldi-txartela eskura dezakete desgaituen **garraio kolektiborako** bakarrik diren ibilgailuen jabeak, norbanakoak edo erakundeak, betiere gizarte-zerbitzuak eskaintzen badituzte.
- **Arrazoi humanitarioak medio**, behin-behineko aparkaldi-txartela eman dakieke mugikortasun urria duten **gaixo terminaleri**, urritasuna ofizialki aitortu ez bazaie ere, betiere gaixotasun edo patologia oso larriaren ondorioz bizitza-esperantza nabarmen murriztuta badute –adinaren eta bestelako baldintza pertsonalen arabera normaltzat jotzen denarekin alderatuta–, eta aparkaldi-txartelaren eskaera arrunta garaiz izapidetzerik ez dagoela ondorioztatu bada.

Joan den otsailean, **Gobernu zentralari errekerimendua aurkeztea onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, “eskumen-eza” argudiatuta**, desgaituentzako aparkaldi-txartela emateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituen **abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren hainbat artikulua eta xedapen indargabetu ditzan.** Errekerimenduari muzin egingo balio, **Auzitegi Konstituziona-**



lean errekurtsua aurkeztea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera gizarte-laguntzen arloan Gobernu zentralak “**eskumen eskusiboa urratu**” delakoan.

Arloa arautzeko eskumenaren auziaren ebazpena alde batera utzita, **desgaituentzako aparkaldi-txartela emateko eta erabiltzeko araudiak Euskadin izango duen garapenaren eta aplikazioaren inguruko kezka adierazi dio ELKARTEANek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailari, egoera profitatuz.**

Ildo horretan, Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu berriarekin ekainean izandako bileran, ELKARTEAN konfederazioak gaia **elkarlanean lantzeko prestutasuna** adierazi dio, eta Euskadin desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa dutenen kolektiboaren **kekak eta proposamenak helarazi** dizkio, arloa egoki arautze aldera. ELKARTEANek ekarpenak egingo dizkio lantzen ari den araudiaren testuari.

Zuen Elkartera jo dezakezue gaiari buruzko informazio gehiago jasotzeko; bertan azalduko dizkizue aparkaldi-txartela eskatzeko modua eta horrek eskaintzen dituen eskubideak eta abantailak.



BILERA EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURU BERRIAREKIN

Joan den ekainaren leian, ELKARTEANeko Zuzendaritza Batzordeko kideak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu berria den Angel Toñarekin bildu ziren. Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak funtsezko arloak dira gure kolektiboak Bizitza Independentea eta Parte-hartzea izateko baldintzak ahalbideratzeko.

Bileran, **ELKARTEAN konfederazioa aurkeztu** genuen, eta desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten Euskadiko lagunen eskubideak eta interesak defenditzeko ildoan ditugun **misioa, helburuak eta lehentasunak** azaldu genituen. Halaber, enplegu arruntean txertatzeko orduan desgaituek benetako aukera-berdintasuna izateko baldintzak hobetze aldera **elkarrekin lan egiteko prestutasuna** azaldu genion Sailari. Gizarte Zerbitzuak bermatuko dituen Euskal Sistema lortzeko ere lankidetzarako prest gaudela adierazi genion, pertsona horiek ahalik eta autonomia maila handiena, parte-hartzea eta bizitza



independentea izateko prestazioak eta laguntzak eskura ditzaten.

Bilera horretan, ELKARTEAN erakundearentzat bereziki kezkarriak diren gaiak aztertu ziren, eta gure kolektiboak gai horietako bakoitzaren inguruan dituen jarrera eta proposamenak jasotzen dituen dokumentua eman zitzaion sailburuari. Honako gai hauei heldu zitzairen bileran:

- **Bizitza independentearen** alde egitea modu eraginkorrean: bizimodu independentea erraztuko duten prestazioak eta laguntza egoikiak eta nahikoak eskainiko dituen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatuz. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arauketa egokiaren bidez eta, bereziki, **bizitza independentea sustatzeko laguntza-zerbitzutik** kanpo dagoen gure kolektiboa onuradun izan dadin eskatuz. Laguntza-zerbitzu hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen zorroaren barruan dago.
- **Irisgarritasun Unibertsala** sustatzearen alde egitea, zeharka, arlo guztietan, eta Euskadin arau-esparrua eguneratzeko, hobetzeko eta egokitzeko bidean elkarrekin lan egitea.
- Desgaituak **lan-munduan sartzeko** Lanbidek bideratzen dituen laguntzetan azken urteetan izan den desoreka zuzentzea, hau da, enplegu arruntaren eta enplegu babestuen modalitateen artekoa.
- **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea** erdiestea, eta bertan argi eta garbi jasotzea gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundetzat ez direla hartuko administrazio publikoen edo merkataritza-enpresen partaidetza dutenak.
- **Aparkaldi-txartelei** buruzko Europako araudia Euskadin zuzentasunez betearaztea, desgaitasun fisikoa dutenen eta mugikortasun urria duten bestelako lagunen egoerara eta beharretara egokituta.

AGURRA IÑIGO LAMARKARI ETA ONGIETORRIA ARARTEKO BERRIARI

Joan den apirilean esan zion agur bere karguari Iñigo Lamarkak, 2004. urtetik Ararteko izan ondoren. EAJ, PSE-EE eta PP alderdien arteko akordioa medio, Manuel Lezertua legelaria izendatu dute Arartekoaren erakundeko buru, Iñigo Lamarkaren ordeztuz.

Iñigo Lamarkak Erakundearen zuzendaritzan egindako lana aitortuz, ELKARTEANetik gure esker ona adierazi diogu, Euskal Autonomia Erkidegoko herriaren defendatzailearen lanean estilo, norabide eta edukiari dagokionez erreferente izan delakoan. 2004. urtean zeregin horretan hasi zenetik ekarpen esanguratsua egin dio euskal herritarren eskubideen eta interesen defentsari orokorrean, eta bereziki desgaituen kasuan. Bera sustatzaile eta gidari izan dela, desgaituok gure egunerokoan bizi dugun egoerari buruzko azterketa zehatza eta hurbilekoa eraman du Erakundeak gizartera, eta baita proposamenak ere, gure eskubideak aukera-berdintasunez eta irisgarritasun unibertsalaz baliatzeko oinarritzakoak, hurbilekoak eta beharrezkoak diren gaietan.

Desgaituak ikusiak izateko egin duen ekarpena eskertu nahi dugu bereziki, eta batez ere ELKARTEAN konfederazioak ordezkatzan dituen desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten lagunekiko erakutsi duen prestutasuna, hurbiltasuna eta haien beharren gaineko interesa.

Halaber, Ongietorria eman nahi diogu Ararteko berria den Manuel Lezertuari. Elkarlanerako ildo beretik aurrera egin nahi dugu, Erakundearen lanari jarraipena emanaz.

ELKARTEAN KONFEDERAZIOAREN PARTAIDETZA MAHAI INSTITUZIONALETAN, FOROETAN ETA JARDUNALDIETAN

Euskadin desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten lagunen eskubideen eta interesen alde politikoki, erakundeetan eta herritarren artean eragitea da ELKARTEAN konfederazioaren lehtasunetako bat.

Ildo horretan, modu esanguratsuan hartzen du parte bai Administrazio Publikoek sustatutako Mahaietan, Batzordeetan eta Kontseiluetan, eta baita Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Elkarte Mugimenduan ere, hainbat Plataforma eta Erakundetan.

2015eko lehen seihilekoan, hain zuzen, partaidetza aktiboa izan du honako hauetan:

- Elkarrizketa Zibilaren Mahaia.
- EAeko Administrazio Publikoetako Batzordeak eta Kontseiluak, hainbat eskumen mailatan: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Familiaren Euskal Kontseilua, Hirugarren Sektore Sanitarioko Erakundeen Batzorde Estrategikoa, besteak beste.
- Edekak eta Sareen Sareak sustatutako Batzordeak eta Foroak.
- Bestelako foroak, jardunaldiak eta herritarren plataformak, herritarren eskubideen, berdintasunaren, inklusioaren eta pertsona ororentzako irigarritasun unibertsalaren aldekoak, eta baita euskal herritarren eskubideen eta ekitate eta justizia sozialaren alde antolatutakoak ere.

Gaur arte, ELKARTEAN konfederazioak honako jarduera hauetan hartu du parte, aurretik parte-hartze esanguratsua prestatuta, jarrera eta

ekarpenak alderatuta eta kasu bakoitzean eman dituen dokumentuak landuta:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, 2015eko urtarrilaren 23an.
- Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren bilera, 2015eko martxoaren 11n.
- Familiaren Euskal Kontseilua, 2015eko martxoaren 25ean.
- Hirugarren Sektore Sanitarioko Erakundeen Batzorde Estrategikoa, 2015eko maiatzaren 12an.
- Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren jardunaldia, ONGIZATE ESTATUAREN AHULTZEA ETA HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN EGINKIZUNARI buruzkoa, apirilaren 27an.
- HIRUGARREN SEKTOREAREN LIBURU ZURIARI buruzko mintegia, apirilaren 16an: Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareen lankidetzarekin sektorearen erronkak eta sustatu beharreko norabideak zehazteko antolatutako mintegia.

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LEGE- PROIEKTUA

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektua izapidetze-prozesuan dago Eusko Legebiltzarrean.

ELKARTEAN konfederaziotik ekarpenak egin dizkiegu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak aurkeztutako hasierako zirriborroei, gure jarreraren oinarritzko ardatz hauen alde egite aldera:

- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek duten gizartea eraldatzeko egitekoa sendotu egin behar da.

- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen izaera independentea eta autonomia bermatu behar da, eta horretarako, irabazi-asmoa duten enpresek eta/edo administrazio publikoek haien administrazio-organoetan ordezkari izatea saihestu.
- Gizarte-ekimeneko erakunde izateko baldintzen artean sartu behar da erakundeon jardueraren helmuga diren pertsonen, familien, taldeen, kolektiboan eta/edo komunitateen eskubideak eta interesak ordezkatzeko xede izatea.
- Hirugarren Sektore Sozialaren antolatzaile-izaeratik kanpo utzi behar dira merkatu-ekoizle diren erakunde pribatuak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asetzeko sortutako enpresak.
- EAEko erakunde guztietan Hirugarren Sektorearen parte-hartze BENETAKOA ETA ERAGINKORRA bermatu behar da, desgaituak, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan direnak, adinekoak edo gure gizartean ahulenen artean diren gainontzeko kolektiboak ardatz dituzten politikak landu, burutu, segimendua egin eta ebaluatzeko orduan.
- Erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurak lehenetsuz zuzeneko kudeaketa publikoa izan dezan bermatu behar da.

EH Bildu eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak (PSE-EE) Legebiltzarreko taldeek hala eskatuta, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektua lantzen ari den Eusko Legebiltzarreko Batzordearen aurrean agertuko da ELKARTEAN. Agerraldia uda ostean izango dela aurreikusi da. ELKARTEAN konfederazioarentzat **aukera garrantzitsua** izango da Proiektuari buruz dugun ikuspegia eta jarrera adierazi eta azaltzeko. Hirugarren Sektore Sozialari buruz dugun ikuspegia eta jarrera ezagutzeko Eusko Legebiltzarrak izan duen ekimena eta interesa eskertzen ditugu, Sektoreko beste Erakunde batzuen aldean gure ikuspuntuak bestelako balioa erantsiko duela uste baitugu.

FAMILIA-DEKRETUAK

Eusko Jaurlaritzak bi dekretu aldatzea onartu du joan den martxoan: familia eta lana bateratzeko laguntzei buruzkoa eta familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.

Familia eta lana bateratzeko laguntzei buruzko Dekretuari dagokionez, familia-errenta estandarizatu aplikatzearen ingurukoa da aldaketa nagusia. Aurreko araudiarekin alderatuta, aldaketa nagusia da hemendik aurrera koefizientea kalkulatzeko orduan kontuan hartuko dela familia-unitatea, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-egoera, edo gurasoen mendekotasuna.

Adingabeak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen lerroan, berriz, honako berritasun hauek izango dira:

- Diruz lagun daitekeen lanaldi-murrizketaren kasuan seme-alabaren adina 8 urtetik 12ra zabalduko da.
- Diruz lagundutako lanaldi-murrizketaren gehienezko epea luzatu egingo da, eta baita diruz lagundutako etapako lan-eszedentziaren gehienezko aldia ere bikotearentzat.
- Erditzea, adopzioa, harrera edo tutoretza anitza bada, 320 egun gehiagokoa izango da, adingabe bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jarduera diruz lagunduta izateko gehienezko denbora-muga, bai bikotearentzat etapako eta baita familia-bizitza osorako ere.
- Jardueraren xede den seme-alabak % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna badu, lan-eszedentziaren aldi osoa diruz lagundua izateko aukera onartzen da.

Zaintzaileak kontratatuzko laguntzen lerroan:

- Kategoría bereziko familia ugariak laguntza jasotzeko aukera izan dute gurasoetako batek lanaldia murriztuta izanik ere, eta orain salbuespen hori zabaldu egin da. Aldaketaren ondorioz, kategoría orokorreko familia ugariak ere izango dute aukera hori.

**Seme-alabak ardurapean dituzten Familien-
tzako Laguntza Ekonomikoaren Dekretuaren**
kasuan, berritasun nagusia da familia-errenta
estandarizatuaren sistema erabiliko dela zenba-
tekoa kalkulatzeko; irizpide bera erabiliko da le-
hen, bigarren eta hirugarren seme-alabagatik eta
hurrengoengatik emango diren diru-laguntzetan
ere.

Beste berritasun garrantzitsu bat da laguntzen
zenbatekoak berberak izango direla lagungarriak
diren egoera guztietan, eta baita hurrengo urtee-
tan ere (mantenurako laguntzak), seme-alabaren
adina eta ordena alde batera utzita. Laguntzok



400 eta 900 euro bitartekoak izango dira, fami-
lia-errenta estandarizatuaren arabera. Horrela,
20.000 €-ko edo gutxiagoko familia-errenta es-
tandarizatuaren kasuan zenbatekoa 900 eurokoa
izango da; familia-errenta estandarizatua 20.000
€-tik 30.000 €-ra artekoa bada, zenbateko hori
barne, laguntza 500 eurokoa izango da; azke-
nik, 30.000 €-tik gorako familia-errenta estan-
darizatuaren kasuan laguntzaren zenbatekoa 400
eurokoa izango da.

**2015eko martxoaren 25ean egindako Fami-
liaren Euskal Kontseiluaren bileran, ELKAR-
TEANek positiboki baloratu ditu araudi berria-
ren aurrerapenak, eta familiei eta arreta-sare
naturalari arreta eta laguntza eskaintzeari buruz
dituen jarrera-ildo nagusiak planteatu ditu:**

- Autonomia Erkidego mailan edo Foru Al-
dundien eskutik familiak laguntzeko aurrera
eramaten diren arau-ekimenei eta planifika-
ziozkoei jarraipen zorrotza egin behar zaie;
izan ere, **desgaituak ez dira beti “arretaren
eta zaintzaren xede” izaten.** Kasu askotan,
desgaitua adingabeen ama edo aita izaten da,
familia baten arduradun... **desgaituek ere
“zaintzaile-lana” egiten dute mendekota-
sun-egoeran diren senitartekoekin.**
- Horregatik, desgaituen beharrei erantzuteko
protokoloak eta ekintzak egituratu behar dira,
kontuan hartuta ez direla bakarrik zaintza jaso
dezaketen pertsonak, baizik eta familiaren ar-
duradun izan daitezkeela, adingabeak edo adin
nagusikoak diren seme-alaben guraso, hau
da, eurak ere zaintzaile direla. Azken finean:
euren bizitza-proiektuen protagonista eta ar-
duradun.
- **Familia eta lana bateragarri egiteko lagun-
tzetan aurreikusi behar da litekeena dela
desgaitua ez izatea semea edo-alaba baka-
rrik,** familia-unitateko beste kideren batek ere
izan dezakeela desgaitasunen bat (aitak, amak,
bikotekideak...).
- Laguntza eta arreta berezia bermatu behar zaie
**kideren baten mendekotasuna edo desgai-
tasuna medio egoera ahulean edo larrial-
dikoan diren familiei.**
- Familientzako laguntzetan kontuan hartu be-
har dira baita **arreta-sare naturalarentzako**
laguntzak ere: familia-loturarik izan gabe
arreta-sare naturalaren barruan diren pertso-
nak, desgaituak edo mendekotasun-egoeran
diren pertsonak lagundu eta zaintzen dituzte-
nak.

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

ELKARTEAN konfederazioarentzat, **Bizitza Independentea eta pertsona oro-ren Parte-hartzea ahalbideratzeko oinarrizko baldintzetako bat da Irisgarritasun Unibertsala.** Gainera, irisgarritasun unibertsalean egiten diren hobekuntzak **euskal gizarte osoarentzako hobekuntza esanguratsuak** dira (batez ere adinekoentzat, mugikortasun urria dutenentzat, haurrak dituzten familientzat, etab.).

Funtsezkoa da arlo horretan **zeharkako eta konpromisozko ikuspuntuarekin** lan egitea, hainbat esparru (Enplegua, Hezkuntza, Osasuna, Kultura eta Kirola, Garraioa, Etxebizitza, Gizarte Zerbitzuak...) eta eskumen maila (EAE, Lurraldeak, tokiko erakundeak) partaide direla, Irisgarritasun Unibertsala lanerako lehentasuntzat hartuta.

2014an eraturako Irisgarritasunari buruzko Lantaldeak egoeraren diagnostikoa egin zuen eta hainbat betebeharrak proposatu:

- Administrazio publikoen aldetik Irisgarritasun Unibertsalarekiko kezka eta konpromisoa “mahai gainean jartzea” eta agenda politikoan sartzea.
- **Irisgarritasunari buruzko Euskadiko arau-esparrua eguneratzea** (Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legea, 68/2000 Dekretua –hiri-inguruneen, gune publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen-, eta garraioaren arloko Dekretua).
- **Indarrean den irisgarritasun-araudia betearazteko jarduerak planifikatzea eta mekanismo egokiak eskaintzea**, funtsezko eragile guztiak inplikaturik eta askotariko jarduerak abian jarritz, hala nola, sentsibilizazioa eta prestakuntza xede dutenak eta baita segimendua, ikuskaritza eta kontrola burutzekoak ere.
- Irisgarritasun unibertsalaren inguruan euskal gizarte osoa inplikatzeko eta sentsibilizatzea.

Hori guztia kontuan hartuta, irisgarritasuna lehenetsun bilakatu nahi du ELKARTEANek esparru eta eskumen maila guztietan inplikaturako administrazio publikoen planifikazioan, politiketan eta konpromisoetan. Halaber, Euskadin irisgarritasun unibertsalaren inguruko arau-esparru eguneratua nahitaezkoa dela planteatzen du.

Ildo horretan, irisgarritasun unibertsalaren inguruan Euskadin indarrean den araudia hobetze aldera, Lan-mahaia sortzeko laguntza eskatu du konfederazioak Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu berriarekin ekainean egindako bileran. Ekimen horretan zeharkako inplikazioa izan beharko lukete gaiarekin zerikusia duten Sail eta Arlo guztiek, eta Elkarte Mugimendua ere partaide izan beharko litzateke.

Era berean, 2015ean honako gai hauek lantzen ari da ELKARTEANeko Irisgarritasuneko Lantaldea:

- Hiri-inguruneen, gune publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 DEKRETUAREN aldean bestelako edukia izango duen proposamen osatua eta argumentuduna lantzea; eta berdin egitea garraioa irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen uztailearen 10eko 126/2001 DEKRETUAREN kasuan, hau da, horren ordezko proposamena lantzea.
- Proposamen horrekin bat, egungo egoerari buruzko Diagnostikoa osatzea.
- Profesionalen elkargoekin harremanetan jartzea, irisgarritasun unibertsaleko baldintzen inguruan sentsibilizatu eta parte har dezaten.



EUSKADIKO ETXEBIZITZA LEGE BERRIA ONARTZEA

Iragan ekainaren 18an, Eusko Legebiltzarrak arau-esparru berria onetsi zuen etxebizitzaren alorrean. Aurrerakada handia da Euskadirentzat; izan ere, etxebizitza duin, egoki eta irisgarria ez daukaten eta hura eskuratzeko beharrezko baliabide ekonomikorik ez duten pertsoneri legezko okupazio egonkorerrako eskubidea aitortzen die. Beraz, eskubide subjektiboa eta galdagarria da, hau da, ez dago arbitrariotasunaren edo aurrekontu-erabilgarritasunaren menpe. Eskubide horren titularrei jurisdikzio-bidera jotzeko aukera ematen zaie, eskubidea eraginkorra izan dadin, behartuta dauden botere publikoek eskubide hori urratzen duten kasuetarako. Aurreikuspen hori guztiz berria da espainiar legerian.

Horrenbestez, 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak, etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubide subjektiboa aitortzen die Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsoneri.

Era berean, Euskadiko etxebizitza-politikaren printzipio gidarien artean haxe dago: eskuhartze guztiak, etxebizitza babestu eta zuzkidura-bizitoki berriak eraikitzeak eta horiek birgaitu edo eraberritzeak, bizigarritasun-, funtzionaltasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzerantz bideratzea, irisgarritasunean arreta berezia jarrita.

Araututa geratu dira, halaber, egokitu gabeko etxebizitza baten titular direnei egokitutako etxebizitza edo bizitoki bat esleitzeko baldintzak, batetik, eta hipoteka exekutatzearen ondoriozko utzarazpen-prozeduretan sartuta dauden etxebizitzaren aldi baterako erabileraren nahitaezko desjabetza gauzatzeko prozedura, bestetik, desgaitasunak dituzten pertsoneri eragiten dien kasuak ere aintzat hartuta.

Azken buruan, legea aurrerapen handia da gizarte-eskubideen alorrean, eta, zalantzarik gabe, arautegi bidez egoki garatzea eskatuko du,

eta etxebizitza-politikaren alorrean behar diren neurri eta ekintzak zehaztea.

MAIATZEKO HAUTESKUNDEEN OSTEAN ERATU DIREN FORU ETA TOKI GOBERNU BERRIETARAKO ELKARTEAN KONFEDERAZIOAK ZEHAZTUTAKO 12 LEHENTASUNAK

Maiatzean egin ziren foru- eta udal-hauteskundeen ostean eta arlo bakoitzeko gobernu-talde berriak eratuta daudelarik, legealdi berrirako aurkezten diren lehentasuneko 12 ildoetako buruzko dokumentua igorri die ELKARTEANek. Hauek dira ildook:


- 1 **Irisgarritasun unibertsalaren** arloan ezartzekoak diren arauak betetzen direla ziurtatzea, eta, horretarako, arautegi (udal-ordenantzak...) eta tokiko plangintza egoiak sortzea, irisgarritasun unibertsalaren baldintza guztiak betetzen eta galdatzen direla bermatzeko, funtsezko arloetan: etxebizitza publiko nahiz pribatuan, eremu publikoetan, ikastetxeetan, eraikuntza publikoetan, garraioan, komunikazioan, aisian, kulturean eta kirolean.
- 2 Nork bere eskumenean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzearen alde apustu egitea. Horren bidez, desgaitasunak dituzten pertsonen **bizimodu independentea** helburutzat harturik, baliabide, prestazio eta laguntzen eskaintza zabal, askotariko eta nahikoa bermatuko da, desgaituek aukera izan dezaten non eta norekin bizi aukera-

tzeko, beste guztien baldintza berberetan eta bizitza-sistema jakin baten pean bizitzera behartuta egon gabe.

- 3 Gainerako zerbitzu eta prestazioak osatzeko **Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa** eta **Bizimodu Independenterako Laguntza Programa** egoki eta behar adina zabaltzen direla bermatzea, eskatzen duten desgaitasundun pertsonen artean eta haien beharren arabera, bizimodu independentea lor dezaten.
- 4 Erkidegoan eskuragarri dauden laguntza eta baliabide guztiak **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik** egoki **koordinatzen eta dinamizatzen** direla bermatzea, beste kolektibo batzuetan —haurtzarora, bazterketa...— kudeaketa publikoko zerbitzu orokorretatik gauzatzen diren moduan. Gaur egun, desgaitasunak dituzten pertsonen artean ez dago hori bermatuta, baliabide espezializatueta bideratzen baitira hasieratik.
- 5 Nork bere eskumenetan, desgaitasunak dituzten pertsoneri **lan-munduan sartzen** laguntzeko jarduketak eta ekimenak garrantzea, ohiko lanetan eta autoenpleguko eta ekintzailtzako formuletan sartzerik izan dezaten. Enplegu publikoaren alorrean desgaitasunak dituzten pertsoneri lanpostuak

gordetzeko arautegi aplikagarria ere betetzeara.

- 6 **Mugikortasun-politiken eta ibilgailuak aparkalekuan uzteko txartelaren** alorreko udal-ordenantzak zehaztean eta martxan jartzean, desgaitasunak dituzten pertsonentzako neurri egokiak aintzat hartzea. Besteak beste, mugikortasun urriko pertsonentzako txartelak egoki erabiltzen direla bermatzea.
- 7 Eskatzen duten pertsona guztientzat **errentako udal-etxebizitza egokitu eta irisgarriak** sustatzea, eta legeak finkatzen dituen etxebizitza egokituak gordetzen direla bermatzea.
- 8 **Aisia-, kultura- eta kirol-eskaintza askotarikoa, egokia, irisgarria eta nahikoa** dela bermatzea, desgaitasunak dituzten pertsona guztiak, haien adina eta beharrak aintzat hartuz, komunitateko jardueretan gainerako herritarrek moduan parte hartzerik izan dezaten.
- 9 Aldundiek eta udalek **gizarteratzeari eta mendekotasunei ematen dizkieten prestazio ekonomikoek** kontuan har dezatela desgaitasunak pertsonentzat eta haien familientzat dakarren gainkostua.
- 10 Udalaren eskumenekoak diren **Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuen** irizpide eta baldintzak bateratzea, Euskadin eskatzen duen edonork zerbitzu hori jasotzerik izan dezan, bere beharrei erantzuteko moduko baldintza egokietan.
- 11 Sailen artean eta arlo bakoitzeko —gizartezerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna, kirola, kultura, garraioa...— beste administrazio publiko eskudun batzuekin egoki koordinatzea, pertsonen osotasunaren inguruko **zeharkakotasuna** bilatzeko.
- 12 Desgaitasunen bat duten pertsonen (ordezkatzeko dituzten erakunde bidez) dagozkien politika ofizialak osatzen, betearazten, jarraitzen eta ebaluatzen **elkarrizketa zibilaren** printzipioari jarraiki parte hartzen dutela bermatzea.



eginarene eginez elkarteak webgune berriua aurkeztu du, web orriaren diseinua goitik behera aldatu eta gero. Honen helburua da elkarteko kide diren pertsoneri edota aniztasun funtzionalean eta berdintasunaren aldeko neurrien inguruan interesa duten guztiei gune gaurkotuagoa, baliagarriagoa, erabilgarriagoa eta, batez ere, aproposagoa eskaintzea.

Bertsio berri honek berrikuntza eta hobekuntza ugari dakar, nola diseinuan hala nabigazio, eduki eta teknologia alorretan. Laburbilduz, hauek dira garrantzitsuenak:

- **Diseinu erabilerraza:** ikono, argazki eta irudien erabilera indartu da eta informazioa beste era batean antolatuta da, edukiak erraz eta arin eskuratu ahal izateko.
- **Nabigazio errazagoa:** webguneko atalak sinplifikatu egin dira, errazagoa izan dadin elkartearen ekimeneri buruzko informaziora iristea, zabaldu eta berri egin baitira. Horri esker, errazago eskuratu ahal izango da elkarteak bere aldarrikapenak egiteko antolatu ohi dituen ekintzen informazioa.
- **Eduki erabilgarriak eta parte-hartzea:** gaurkotasunezko edukiak indartu ditugu, eta argitaratutako aldizkari eta txostenetarako estekak ditu webgune berriak, baita elkartearen blogetara sartzeko estekak ere. Horrekin, parte-hartze aktiboa sustatu nahi da, eta aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko informazio erabilgarria jasotzea erraztu.
- **Teknologia berria:** azken berrikuntza teknologikoak erabili ditugu, webguneari etekin handiagoa atera nahian, gero eta gehiago baitira aniztasun funtzionalari, desgaitasun fisikoari eta bizitza independenteari buruzko gaietan interesa duten erabiltzaileak.
- **Beharrak asetzera:** Berrikuntza hauek guztiak hilabete askoan egindako lanaren eta ikerketaren fruitua dira. Gure elkartearen beharrak asetzera dator, aldarrikatzaileak baikara: gizarte eraldatzea eta gizarte inklusiboa -bere baitan pertsona guzti-guztiak hartzen dituen- aldarrikatzen dugu.

- **Gardentasuna:** Gardentasunaren Lege berriaren ondorioz, elkarteak jakitera eman behar ditu kontratu eta diru-laguntza guztiak. Hori dela eta, erakundeekin ditugun hitzarmenen inguruko informazioa topatuko duzu webgune berrian, baita elkarteak berak kudeatzen dituen diru-laguntzei buruzkoa ere.
- **Autokudeaketa:** eginarene eginez elkarteko kideok zuzen-zuzenean kudeatzen dugu webgune berria. Informazioa berehala zabaldu ahal izateko, tresna dinamikoa izan dadila nahi dugu.

Gure webgune berrian sartzera eta zure eskurara jarri ditugun hobekuntza guztiak ezagutzera gonbidatzen zaitugu: **www.eginez.org**

www.eginez.org webgune berriarekin batera, **gizarte-sareetan ere badago eginarene eginez** elkarteak. Horri esker, informazioa zabaltzen dugu eta uneoro eta arin dugu harremana desgaitasun bat dutenekin, baita erakundeekin ere; eta, oro har, gizarte osoarekin. Gizarte-sareetan ere, gure lanaren berri izatera animatzen zaituztegu: **Twitterren kontuan** (@eginareneeginez) eta **Facebookeko orrian** (<https://www.facebook.com/eginareneeginezvitoria>).

Gune horietan **eginarene eginez** elkarteak antolatuta eta egiten dituen ekintzak ezagutu eta partekatzeko aukera izango duzue, eta zuentzat interesgarriak izan daitezkeen azken nobedadei buruzko informazioa jasoko duzue. Horrez gain, zuen komentario eta iritziak utzita, parte hartzeko aukera izango duzue.



GASTEIZKO UDALBATZA BERRIARI ETA ALKATEARI

Eginaren eginez elkarteak, herri, auzo eta sindikatuetak beste 25 elkarterekin batera, dei bat egin die joan den maiatzaren 24ko hauteskundeetan hautetsiak izan ziren alderdi politikoei.

Udal-erakundea demokratizatzeko garaia da; udalbatzan lortu duten ordezkartzaren arabera, lanerako garaia iritsi zaie hura osatzen duten talde politiko guztiei, eta ez soilik alkatearenari.

Baina udalaren barne-demokratizazioak ez du konpontzen herritarren parte-hartzearen auzi nagusia; hori baldintzatzen jarraituko du udalbatzaren araudi organikoak. Eta ez da onargarria orain arteko egoera luzatzea; alegia, udal-gobernuko 18 zinegotziren botoek aurreko alkatearen 9 botoen aurrean galtzea eta, horren ondorioz, udalbatzaren akordioek adierazpen-balio hutsa baino ez izatea. Joan den legealdian, herri, auzo eta sindikatuetak elkarteek aurkeztutako proposamenen gainean osoko bilkuran adostutako akordio askok udalbatzaren gehiengo baten babesa izan zuten, 18 zinegotziren babesa, baina, hala eta guztiz ere, akordio horiek ez zuten udal-gobernua eta alkatea behartzen; hots, ez zuten derrigorrean bete beharreko irizpenen adinako indar exekutiborik.

Funtsezko gaiak dira biak: osoko bilkuren demokratizazioa eta herritarren parte-hartzea. Eta, biak ere, funtsezko zutabe izan behar dute Gasteizko Udalean gertatu beharreko aldaketa gerta dadin.

Horregatik, herri-elkarteok dei egiten diegu udalbatza berriari eta Gorka Urtaran alkate berriari, bi oinarri demokratiko horiek kontuan izan ditzaten udalbatzako araudi organikoa adosteko orduan, horrek gero bere eragina izango baitu herritarren parte-hartzearen araudian.

Bi gai nagusi horiei buruz hitz egin nahian, hitzordua eskatu diegu EAJ, EH Bildu, Hemen

Gaude eta Irabazi alderdi politikoei, haien 14 zinegotziek ahalbidetu baitute alkate berriaren izendapena; eta zuzenketa gisa, bi proposamen aurkeztu ditugu 2015eko urtarrilaren 30eko herritarren parte-hartzearen araudiaren zirriborroan.

Gasteizko Udalak garai berri bati hasiera eman go diolakoan gaude. Talde politikoei zein eragile sozialek parte hartzeko bide demokratikoak izango dituztelakoan, eta elkarrekin erabakitzea Udalaren eta herritarren arteko hartu-emanen ardatz nagusia izango delakoan.

GASTEIZ, 2015ko EKAINA

AA.VV. ERROTA ZAHARRA / ZAZPIGARREN ALABA / BETIKO GASTEIZ /-IKASLE ABERTZALEAK /BILGUNE FEMINISTA /-EUSKHARAN / EHE / ASKAPENA / BARRRENKALE / JUDIMENDIKOAK / STEELAS / LAB / SOS RACISMO ARABA / ASOCIACIÓN ATAWASOL VASCO MAGHREDI / ONGI ETORRI / COLECTIVO DE VECINOS PAKISTANIES / AS. SENAGALESES DE GASTEIZ / BOST URKI / EGINAREN EGINEZ / ELKARTZEN / ERREKALEOR BIZIRIK / PENSIONISTAK LANEAN / ERREKA TXIKI

EGINAREN EGINEZ- EK HELEGITEA JARRI DIO OSAKIDETZAREN EPE-RI

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 59. artikulua 1. puntuak zehaztutakoaren arabera, enplegu publikoko eskaintzetan, lanpostu hutsen gutxienez %7 desgaitasunen bat duten pertsonen bete behar dute, hautaketa-prozesuak gainditu eta, beren desgai-

tasuna eta zeregina betetzeko bateragarritasuna egiaztatu ondoren.

Estatutu horren arabera, gutxienezko %7 hori honela gorde behar da: eskaintako lanpostuen %2 gutxienez desgaitasun intelektuala dutela egiaztatzen duten pertsonentzat, eta gainerako lanpostuak, bestelako desgaitasunen bat egiaztatzen dutenentzat.

Bestalde, Osakidetzan estatutu-lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuen Oinarri orokorrek men egiten diote Estatutuak xedatutakoari, eta ehuneko berberak gordetzeko eskatzen dute.

Osakidetza Zuzendari Nagusiaren 1135/2015 Ebazpenak (Hautapen-prozesuen Oinarri orokorrak onartzen dituenak) xedatzen duenaren arabera, estatutu-pertsonalaren egoera eskuratzeko (txanda librea) 507 postu eskaintzen dira, eta barne-promoziorako beste 507 postu.

Estatutu-pertsonal finkoaren (txanda librea) egoera lortzeko eskaintako guztizko postuen artean, 35 desgaitasuna duten pertsonak betetzeko dira, eta horietatik 10, desgaitasun intelektuala egiaztatzen dutenek.

Gauza bera gertatzen da barne-promoziorako postuekin. Izan ere, beste 35 lanpostu gorde dira desgaitasuna dutenentzat, eta berriro ere, 10 dira desgaitasun intelektuala egiaztatzen dutenentzat.

Bi kasuetan, lanpostu guztietatik, 507, 35 gordezea %6,90 besterik ez da. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako lanpostuei dagokierik, 10 lanpostu %1,97 soilik da.

Horrek Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 59.1 artikulua eta Oinarrien 1.3 artikulua xedatutakoa urratzen du, ez baitu betetzen ez desgaitasuna orokorrean duten pertsonen gutxiengoa (%7), ez eta desgaitasun intelektuala dutenen gutxiengoa (%2) ere.

Ondorioz, Osakidetzan estatutu-lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuetan pertsona desgaituentzat eskaintako lanpostu-kopurua handitu egin beharko da, desgaitasuna orokorrean dutenen kasuan gutxienez %7ra iritsi arte, eta desgaitasun intelektuala dutenen kasuan gutxienez %2koa izan arte, hurrenez hurren.

Horregatik jarri dugu gora jotzeko helegitea Osakidezaren Administrazio Kontseiluaren aurrean. Izan ere, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuek indarrean dagoen legeriak ezarritako ehunekoak bete ditzaten eskatzen dugu.

Era berean, helegite horren bitartez hautaketa-prozesuak bertan behera uzteko eskatzen dugu, desgaitasuna duten pertsonak betetzeko lanpostuek Legeak ezarritako gutxiengoetara iritsi arte.



BIZILAGUN

BIZILAGUN doako zerbitzu publiko bat da; bere helburua tresna batzuk eskaintzea da, bizilagunen komunitateetan edota etxebizitza (edo lokal) bat errentan ematen eta hartzen dutenen artean hainbatetan sortzen diren eztabaida, desadostasun eta akordiorik ezak konpondu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak sortua eta Etxebizitza Sailak kudeatua, **BIZILAGUN** herritar guztientzat da, eta hauek dira bere helburu nagusiak:

1. INFORMAZIOA

Zerbitzu honen bitartez, jabe, bizilagun, alokatzaille edo maizter gisa ditugun eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea da helburua, eta, halaber, eskubide edo betebeharrei dagokienez, etxebizitza baten jabe edo maizter gisa sortzen zaizkigun zalantzei buruzko orientazio eskaintzea.

2. BERMEAK

Alokatzaileak nahiz maizterrek alokairu-kontratuetan xedatutakoa beteko dela berma dadin, BIZILAGUNek ardura hauek hartuko ditu:

- Alokairu-kontratuak **ikus-onestea eta erregistratzea**.
- Jabeak kontratuaren hasieran, legez hala behartuta, kobratzen dituen **fidantzak ezartzea**.

3. BITARTEKARITZA

Komunitate bateko bizilagunen artean edo alokatzaileen eta maizterren artean bitartekari izateko aukera eskainiko du **BIZILAGUN**ek, sor litezkeen gatazkak konpontzeko, baldin eta interesatuen artean zuzenean konponetzen ez badira.

Bitartekaritza horietan, BIZILAGUNek ez du nahitaez bete beharreko ebazpenik eman, baizik eta aldean arteko akordioak lortzea bultzatuko du.

Bizilagun zerbitzuarekin harremanetan jartze-ko, hainbat aukera daude:

- **Telefonoz deituz:** **ZUZENEAN** 012
Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:30era
- **Online Zerbitzuaren** bitartez: **Buzón de euskadi.net**
- Edozein egunetan eta edozein ordutan.

Edo **bulegoetara** etorritz:

Samaniego kalea, 2

01008 Vitoria-Gasteiz. **Araba.**

Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da. **BIZILAGUN** zerbitzuarekin **aldez aurreko hitzordua** eskatzeko, **ZUZENEAN**en **bulegoetara jo dezakezue, Ramiro de Maeztu kaleko 10 zk., astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 19:30era, edota telefonoz 012 zenbakira deituz).**

ELKARTE BAT SORTU DA ARABAN

Hezkuntza da gizarte baten oinarrietako bat. Hezkuntza inklusiboak eta kalitatezkoak gizarte bidezkoagoa ekarriko du.

Espiritu horrek bultzatu zuen hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleen familien Arabako Plataforma eratzerara. Izan ere, elkarte horretan gure seme-alaben eskubide bat defendatzen dugu: beren gaitasunak indartuko dituen hezkuntza jasotzekoa.

Hori horrela, gure ahaleginak ikasle bakoitzaren beharrizanei erantzutera bideratzen dira. Kontzeptu hori jasota dago jadanik oraingo legerian, baina ez da behar bezala gauzatu, giza baliabideak eta materialak ez baitira behar adinakoak

izan, kasu batzuetan, edo gaizki kudeatu dira, beste batzuetan. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Hezkuntzako profesional askok printzipioz ez dagozkien zereginak betetzen dituztela, ikaslearen eskubide hori bermatzeko.

Baliabideek eta kudeaketak ez ezik, gure seme-alabek hainbat etapan artean egin behar dituzten trantsizioek kezkatzen eta arduratzen gaituzte: laguntza goiztiarretik Haur Hezkuntzara, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara, etab., eta halaber, hezkuntza-etapak bukatuta, gure seme-alabek lan-munduan sartu behar dutenean, aurkitzen dugun ziurgabetasunak.

Helburu hori betetzeko, gure plataformak harremanak izan ditu HBBko ikasleak dituzten ikastetxe, Arabako Foru Aldundiko agintari, Gasteizko Udal, Eusko Jaurlaritzara, Eusko Legebiltzar, sindikatu eta abarrekin. Erakunde bakoitzaren aurrean, gure seme-alaben hezkuntza-prozesuari dagokionez familia gisa dugun ikuspegi propioa eman dugu. Izan ere, gure seme-alabek badute zer eskaini giro inpersonala eta lehiakorrean diharduen gizarte honi, eta aberasgarria izan daiteke guztiontzat.

Era berean, gure Plataforma elkargune bat da familientzat. Hemen, beste guraso batzuekin parteka dezakete beren esperientzia, eta babesa eta ulermena aurki ditzakete; funtsezkoa iruditzen zaigu alderdi hori.

Orain, HBBak dituzten ikasleen Familien Arabako Plataformak HBBak dituzten 120 bat ikasle biltzen ditu, hainbat egoeratan daudenak. Hala ere, aniztasun hori ez da inondik inora oztopo bat, eta amalgama hori da, hain zuzen ere, Plataformaren oinarria.

Une honetan urrats handi bat egin dugu, Elkar-te bihurtu baikara; horrek izen-aldaketa txiki bat ekarri du berekin. Horrela, orain **HBBak dituzten ikasleen familien Arabako Elkar-tea - ARABARNEE** gara. Forma berri horren bitartez, familiei laguntza emateko lanetan eraginkortasun handiagoa eta agintarien aurrean presentzia handiagoa lortuko dugulakoan gaude.

Gure helburuetako bat familien ondoan EGO-TEA da; izan ere, badakigu gauza batzuk ulertzeko modu bakarra gauza horiek bidez dela. Horregatik, egoera horretan dauden guraso guz-
tietei gurekin harremanetan jartzeko deia egiten diegu. Hau da gure helbide elektronikoa: **plataformanees@hotmail.com**.

Laster arte!

SEXOLOGIA ETA DESGAITASUNA LANBIDEARTEKO TOPAKETAN

Eginaren Eginez-ek parte hartu du Asociación Discapacidad sin distancia elkar-teak eta Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolak uztailaren 7an Ibaiondo barrutiko Zentroan, Bilboko Pilota kaleko 10 zenbakian (Burtsa eraikina), antolatutako SEXOLOGIA ETA DESGAITASUNA lanbidearteko topaketa.

Topaketa horren helburua, alde batetik, desgaitasuna duten emakumeen eta gizonen sexu-aniztasuna eta beharrezkoak ulertzea izan da eta, bestetik, gaitasun profesionalak hobetzen laguntzea, elkarrearen diseinuan, plangintzan eta esku-hartzean ikuspegi sexologikoa kontuan hartzeko.

Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen sexualitatearen sarri gaizki ulertzen da, eta are kontuan ere ez da hartzen. Desgaitasuna duten emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen lan egiteko lehen urratsa izan da topaketa. Halaber, erakundeak ahalduz saiatu da, elkarrean ar-
teko sare sozialak sortuz eta sendotuz.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexu-
eskubideak aldarrikatzeari dagokionez, Eginaren Eginez-ek bere jarduerak aurkeztu du Arabako esperientziarekin: Gasteizko Udalaren gazteria zerbitzuaren Asexoria sexualitateari



gure entitatea aurkeztea. Izan ere, gure helburua da guk ordezkatzeko ditugun pertsonen komunitateko ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratu ahal izatea eta populazioaren bizikaltatea hobetzea.

Eginaren Eginez elkarteak 35 urteko bere ibilbidea aurkeztu dio gotzainari, eta desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideekin zerikusia duten hainbat alderditan geroztik izan duen eragina: irisgarritasuna, osasuna, errehabilitazioa, enplegua, hezkuntza, aisialdia eta denbora libre, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, haurtzarora eta gazteria, pribatutasuna, mugikortasuna, bizimodu independente eta autonomoa, etab. Ikuspegi inklusiboa eta berdintasunez gizartean eta komunitatean erabat parte hartzekoa kontuan hartuta, betiere.

Une honetan, eta aurki joan egingo dela jakinik ere, garrantzitsutzat jo dugu gure entitatearen lanaren berri gotzainari ematea eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta autonomia pertsonala bultzatzeko elkarlanerako bideak aztertzea.

Gotzaintzak eskaintzen dituen baliabideei dago-kienez, dibertsitate funtzionala duten pertsonen dagozkien gaien inguruan gure elkarteak eta erakunde hark elkar hobeto ezagutzeko ere balio izan du bilerak.

Hori horrela, elkarteak urtero zabaltzen duen Ekarpin Solidarioen Kanpainaren kartelak eta triptikoak helaraziko dizkio gotzaintzari, Gasteizko Elizbarrutiko 422 parroketara, horrela, ahalik eta jende gehienarengana irits daitezten.

Eskerrak ematen dizkiogu gotzainari, gure elkarteari eta desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideen defentsari entzun eta jarrera harbera erakutsi duelako, eta elkarlanerako prest agertu delako.

buruzko udal-eskaintza. Halaber, hainbat kolektiboren esperientziak ezagutu ahal izan ditugu: Bizkel (medula-lesioa), Adembi (esklerosi anitz), edota autismoaren gaia jorratuz lan egiten duten elkarteena, eta talde guztiak bat etorri gara dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexualitatea planteatzeko garaian dauden ga-bezia, hutsune eta ikusezintasunen inguruan.

Topaketa Maria Paz Giambastiani "Asociación Discapacidad sin distancia" elkarteko lehen-dakariak eta Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolako Beatriz Vargas, Mikel Oribe eta Amaia Urrejola sexologo eta psikologoen aurkeztu dute; kolektiboen zerbitzura jarri dituzte beren eza-gutza eta esperientzia, etorkizuneko elkarlanari begira.

TOPAKETA GASTEIZKO APEZPIKUAREKIN

Elkartea Miguel Asurmendi Aramendia Gasteizko gotzainarekin bildu da, Gasteizko Vicente Goikoetxea kaleko egoitzan. Bilkuraren helburua elkartearen lanaren berri ematea izan da, eta dibertsitate funtzionala / desgaitasun fisikoa duten pertsonen aukeraberdintasunaren aldeko borrokan diharduen

EGINAREN EGINEZ-EK BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA EGIN DU

El Pilar Zentro Zibikoko Erakusketen Areatoan antolatu zen apirilaren 22an egina-
ren eginez Arabako Desgaitasun Fisikoa
duten Pertsonen Elkarteak batzardeen Batzar
Orokorra. Aurreko batzarreko akta irakurri on-
doren, 2014ko Jardueren Memoria eta 2014ko
Emaizten Kontua aurkeztu ziren, Batzarrak onar-
zitzan. Jarraian, 2015eko Jardueren Proiektua
eta 2015erako Aurrekontua jorratu zituzten, bai
eta elkarteak Arabako Foru Aldundiarekin eta
Gasteizko Udalarekin sinatutako bi hitzarmen-
en berri eman ere. Gainera, elkarteak hainbat
egitasmo gauzatze aldera eman dituen laguntza-
ildoen berri ere eman zen, egitasmo horiek Era-
bilgarritasun Publikoko elkarte-mugimendu gisa
aitortu duten gure elkartearen jardura sendotzen
lagunduko baitute. Halaber, karguak berri-
tu eta, horrenbestez, honela osatuta gelditu da
Zuzendaritza Batzorde berria:

LEHENDAKARIA:

Soraya Pontejo Navarro.

IDAZKARIA:

Helena Espizua Martínez.

LEHENDAKARIORDEA:

Blanca Esther Pinedo.

DIRUZAINA:

Concepción Franco Ruiz.

BATZORDEKIDEA:

Ana Napal Rodrigo.

BATZORDEKIDEA:

Igor Navarro Brea.

BATZORDEKIDEA:

Karmele Antxustegi Urkiaga.

BATZORDEKIDEA:

Francisco Javier Ruiz Lete.

Horiei guztiei, izendatutako kargu berriei, onena
desio diegu beren jardunean eta 2015eko Batza-

rrera bertaratu ziren pertsona guztiei gure eske-
rrik beroena adierazi nahi diegu lurralde honetan
dibertsitate funtzionala duten pertsonen aukera-
berdintasunaren aldeko borrokaren alde egitea-
gatik eta beren sostengua emateagatik.

VILLABUENA DE ALAVA/ ESKUERNAGAKO UDALAREN AURKAKO AUZIA

Villabuena herria berrurbanizatzen ari
dela baliatuta, udalerrri horretako Uda-
lak Sotera Tabernako plazarako sarbide
batean eskailera batzuk eraikitzea erabaki du,
erabaki hori obra-proiektuan aurreikusita ez ze-
goen arren.

Eskailera horiek ez ziren existitzen (kalea mal-
dan zegoen eta erabilera mistokoa zen, ibilgai-
luentzat zein oinezkoentzat). Gainera, eskailera
horiekin batera ez dira beste irisgarritasun-osa-
gai batzuk jarri (igogailua edo arrapala, kasu),
ezinezkoa baita (Eusko Jaurlaritzaren 68/2000
Dekretuak V. eranskineko 3.3 artikuluan ezarri-
tako salbuespena aplikatzen da).

Beste modu batean esanda, Udalak lehen ez

zeuden tokian oztopo arkitektonikoak eraikitzea erabaki du, eta horrek lehendik zeuden irisgarritasun-baldintzak okerragotu ditu. Hori dela eta, Eginaren Egin ez elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Villabuenako Udalaren aurka, eskailera horiek kentzeko eta kalea lehen zegoen bezala uzteko eskatuz.

Auzi horretan defendatzen da lursailaren topografia edo orografia dela bide ezinezkoa den arren kale hori arauz oinezko ibilbide irisgarritzat jotzeko gehieneko malden neurriak betetzea, Udalak irisgarritasuna hobeen bermatzen duen konponbidea hartu behar duela beti ere, eta inolaz ere ezin dituela okerragotu lehendik zeuden irisgarritasun-baldintzak, ez zeuden lekuan eskailera batzuk eraikiz.

Auzia proba-fasean dago.

GASTEIZKO UDALEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK KUDEATZEKO ARAUDIAREN AURKAKO AUZIA

I Gasteizko aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketa arautzen duen Araudiaren 7. artikuluaurreko erredakzioak **ez zituen egoerak bereizten Gasteizko Udalean desgaitasunak dituzten pertsonak betetzen dituzten postuak behin-behinean betetzeari begira, eta xedatzen zuen betiere desgaitasuna duen pertsona bat izendatuko zela postu horiek behin-behinean betetzeko** (zerrendako ordenari jarraiki baldintza hori betetzen zutenen artean).

Halaxe interpretatu zuen Gasteizko Administrazioarekiko auzien 1. epaitegiak,

onartu egin baitzuen, desgaitasuna duen beste pertsona batek betetzen zuen lanpostu bat behin-behinean betetzeko izenda zezaten eskatuz, pertsona desgaitu batek aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtso bat.

Errekurtso hura beharrezkoa izan zen Gasteizko Udalak ez zituelako desgaitasuna zuten pertsonak izendatzen desgaitasuna duten pertsonak betetzen dituzten lanpostuak behin-behinean estaltzeko, baizik eta Aldi baterako kontratazio zerrendetatik ordenan hurrengoa izendatzen zuen, desgaitasuna aitortua izateko baldintza eskatu gabe.

II Antzeko erabaki judizialak saihesteko helburu garbiarekin (erreklamazio partikular gehiago baitaude arrazoi berengatik), orain dela gutxi egindako Gasteizko Aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketa arautzeko Araudiaren berrikuspena dela eta, aldaketa handi bat sartu da Araudi horren 7. artikuluan.

Zehatz esateko, Araudi horren 7. artikuluaurreko erredakzio berriak esaten du **lanpostu bat eta lantoki bat desgaitasuna duen pertsona bati esleitzeak** (aukeratze prozesu bat gaingitu izanagatik), **ez duela esan nahi, inolaz ere, plaza hori desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatu dagoenik**. Gainera, desgaitasuna duten pertsonak betetako plazak behin-behinean betetzeko orduan, honako kasu hauek bereizten ditu:

- “postu hutsak betetzeko” kasuan (hauxe da, titularrik ez duten plazak betetzea, esate baterako, plaza hutsik geratu delako titularren erretiroagatik, heriotzagatik eta abar, edo hutsik utzi duenak postu erreserbarik ez izateagatik): kasu horietan, zerrendaren ordenaren arabera, baldintza guztiak betetzen dituen lehen pertsonari esleituko zaio plaza huts hori, desgaitasuna izan ala ez izan;

- “ordezkatzte” kasuetan (hauxe da, titularrak baduen lanpostu jakin bat titular hori ez dagoen bitartean betetzea): titularrak plaza horretan postu erreserba duenean bakarrik aurreikusten du, salbuespen gisa, postu hutsa Aldi baterako kontratazio zerrendako pertsona desgaitu batek betetzea (zerrendako ordenaren arabera).

Erredakzio berri hori egin behar izan da Gasteizko Udalak interpretatzen duelako, pertsona bat Lan Eskaintza Publikoan (LEP) desgaitasunak dituzten pertsonentzat erreserbaturiko kupoaren bidez izendatu bada ere lanpostu jakin bat betetzeko, lanpostu jakin hori ez dagoela desgaitasuna duten pertsonen alde erreserbatua LEPen.



- III** Eginaren Eginez elkarteak araudiaren berrikuspen hori errekurritu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, eta funtsean esaten du Aldi baterako kontratazio zerrendak kudeatzeko Araudiaren 7. artikuluko berri hori zuzenbidearen aurkakoa dela diskriminatzailea izateagatik (desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu publikoa lortzeari begira, legegileak ezarritako ekintza positiboaren neurrien eraginkortasunaren aurka egoteagatik), eta desgaitasunak dituzten perso-

nen enplegua lortzeko aukerak murrizteagatik.

Era berean, esaten da, pertsona batek LEP baten ondorioz lanpostu bat lortzen badu desgaitasunak dituzten pertsonentzat erreserbaturiko kupoaren barnean, lanpostu jakin hori bai erreserbatua dagoela LEPen desgaitasunak dituzten pertsonen alde, eta halaxe jarraitu behar duela lanpostu hori betetzeko, baita behin-behinean bada ere, postu hutsa beste karrerako funtzionario batek betetzen ez duen bitartean beste LEP baten ondorioz edo, hala behar badu, lanpostua kentzen ez den bitartean (postu hutsa bete beharrean).

Proba fasean dago auzia.

VITORIA-GASTEIZKO HIRI-MUGIKORTASUNARI BURUZKO ORDENANTZAREN AURKAKO ERREKURTSOA

- I** Gasteizko Izaera Urbanoko Bide Publikoetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna Arautzen dituen Udal Ordenantzaren (aurrerantzean Hiri-mugikortasunari buruzko ordenantza) azken aldaketarekin sartu da mugikortasun urriko pertsonen (aurrerantzean, MUP) eta haurdun dauden emakumeek batera erabiltzeko gordetako aparkalekuak egoteko aukera.

Aurreikuspen horrekin aldeztu aurretik Gasteizen ezarritako esperientzia pilotu bati arazko estaldura eman nahi izan zaio.

- II** Arazoa da, ordea, lehen MUPentzat soilik ziren aparkaleku horiek orain erabilera partekatukoak bilakatu direla. Eta, hain justu

ere, erabilera partekatuko aparkaleku horiek osasun-zentroen eta jendea biltzen den antzeko eraikinen sarreretatik gertu daude. Horrela, adibidez:

- Tren-geltokiko enparantzan, geltokirako sarreran gordetako bi aparkaleku-plazak, lehen MUPentzat soilik zirenak, orain erabilera partekatukoak dira eta gaur egun enparantza horretan ez dago soilik MUPentzat den tokirik.
- Alde zaharreko osasun-zentroaren sarreran dagoen aparkaleku bakarra lehen MUPentzat zen soilik; orain, berriz, erabilera partekatukoa da.
- Santiago ospitalearen eta Olagibel osasun-zentroaren sarreran partekatutako bi aparkaleku daude eraikin horietarako sarbidearen aurre-aurrean (Los Herrán kalea, 38). Lehen soilik MUPentzat gordetako aparkaleku bat zegoen han.
- Lakuabizkarra osasun-zentrarako sarbidean, eraikinaren sarreratik gertuen dagoen gordetako aparkalekua lehen MUPentzat zen soilik, eta orain haurdun dauden emakumeekin partekatu beharrekoa da.
- Zaramagako osasun-zentroaren sarreran dagoen gordetako aparkalekua lehen MUPentzat zen soilik, baina orain erabilera partekatukoa da.

III Hala eta guztiz ere, eta Gasteizen Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuaren arabera **soilik MUPentzat gorde beharreko guxtieneko aparkaleku-kopurura iristen ez den** arren, Gasteizko Udala erabilera eskusiboko aparkalekuak are gehiago murrizten ari da, lehen erabilera eskusibokoak zirenak beste kolektibo batzuekin partekatutako toki bilakatu.

Gaia garrantzitsua da kolektiboarentzat, izan ere, partekatutako toki horietan aparkatzeko, haurdun dauden emakumeei ez zaie eskatzen mugikortasun-baremoa gainditzea (hau da, ez zaizkie MUPei eskatzen zaizkien baldintza berdinak eskatzen).

Gainera, partekatutako aparkaleku horiek osasun-zentroetatik eta jendea biltzen den beste eraikin batzuetatik gertueneko tokietan jartzen ari dira eta horrek modu argian urratzen du Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuan ezarritakoa (Dekretu horren arabera, soilik MUPek erabiltzeko tokiek egon behar dute eraikin eta esparru publikoetarako sarbideetatik ahal bezain gertuen).

Hori guztia dela eta, **Eginaren Eginez** elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri du aipatutako Ordenantzaren aurka Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (auzia proba-fasean dago).

IV Kolektibo gisara, ez gaude haurdun dauden emakumeen alde neurri sozialak hartzearen aurka; ez gaude, ezta ere, haurdun dauden emakumeak edo, aldi baterako bada ere (ebakuntzak, istripuak, etab. direla medio), mugikortasuna urrituta duten pertsonen soilik MUPek erabiltzeko gordetako tokietan aparkatzeko eskubidea izatearen aurka, baldin eta ezarritako mugikortasun-baremoa gainditzen badute.

Onartzen ez duguna da beste kolektibo batzuei baremo berdinak gainditu gabe baimena ematea legez soilik MUPentzat izan behar duten tokietan aparkatzeko, hori guztiz baztertzaila baita MUPen kolektiboarentzat.

Eta ez dugu onartzen, ezta ere, soilik MUPentzat gordetako aparkalekuak tokiz aldatzea, beste ibilgailu batzuei aparkatzeko baimena emateko, eta ez soilik MUPenei, baldin eta, horren ondorioz, MUPentzat gordetakoak eraikin eta zerbitzu publikoen sarbideetatik ahal bezain gertuen egoteari uzten badiote (hain zuzen ere hori eskatzen baitu irisgarritasuneko araudi teknikoak).



FEKOOR-EN IRITZIA BIZKAIAN LAGUNTZA PERTSONALEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEA DELA ETA

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa laguntza hori kontratatzeak dakartzan gastuei aurre egiteko dago; astean gutxieneko ordu batzuetarako eta menpekotasun-neurriaren arabera izaten da. Izan ere, laguntza horri esker, hezkuntza, lana edo eguneroko bizimoduaren autonomia handiagoa izateko aukera lortu ahal izango dute besteen laguntza-aren menpe dauden pertsonak.

Bizkaiko Foru Aldundiak aldaketa batzuk egin ditu Bizkaian laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa arautzen duen 103/2013 Foru Dekretuan (uztailaren 23koa); Dekretu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 44/2015 FORU DEKRETUAN (martxoaren 17koa) dago araututa.

Hauek dira **aldaketarik esanguratsuenak**:

- Legezko emantzipaziorako, 16tik 18ra aldatu da gutxieneko adina.
- Testu arautzaileak, halaber, laguntzaileek etxeko lanak eta zaintza pertsonala egiteko muga ere aldatu du, eta %25ean ezarri du, lehengo %15ekoaren ordez.
- Espresuki baztertzeko dira elikadurarekin, janztearen eta etxearen mantentze-lanekin zerikusia duten laguntzak.
- Bizimodu Independenteterako Banakako Plana (BIP) aurkezteko beharra, aldez aurretik hitzordua hartuta Gizarte Ekintza Sailean. Plan horretan, batetik, zaintza-beharrizanak jasoko dira eta, bestetik, zeregin pertsonalei, laguntza

emateari eta gidatzeari dagokienez laguntzaile pertsonalak dituen funtzioak.

Dekretu berriaren arabera, pertsona onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 16 urtetik gorakoa eta 65etik beherakoa izatea (16-18 urtekoa legez emantzipatuta). 65 urte betetzean laguntza pertsonalaren onuradunak direnak hala izaten jarraituko dute, adin-mugarik gabe.
- III. mailako, II. mailako, I. mailako menpekotasuna aitortuta izatea, 40 puntutik 49ra bitartean; edota I. mailakoa, 25 puntutik 39ra bitartean, %33ko ezgaitasuna edo handiagoa badago. Uztailaren 1etik aurrera, %33ko desgaitasuna edo handiagoa izateko baldintza kenduko da.
- Onuraduna gai izatea zer zerbitzu behar dituen esateko, zerbitzu horiek nola egin kontrolatzeko eta laguntzaile pertsonalari zerbitzu horiek nola egin adierazteko.
- Bakarkako Laguntza Programaren proposamena sinatu ondoren, Bizimodu Independenteterako Banakako Plan bat aurkeztea; aldez aurretik Gizarte Ekintza Sailean hitzordua hartuta. Plan horretan pertsonak behar dituen laguntza guztiak jaso beharko dira, zeregin pertsonalei, laguntzari eta gidatzeari dagokienak.
- Prestazio hori Banakako Laguntza Programan (BLP) aginduta egotea. BLP laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa onartzeko agindua eman ondoren, kasua koordinatzeko pertsona bat izendatuko da.
- 15 eguneko epean, Bizimodu Independentetako Banakako Plana (BIBP), kontratua eta, hala badagokio, laguntzaile pertsonala Gizarte Segurantzaren altan egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dira eta, halaber, pertsonaren erantzukizun-adierazpena eta laguntzaile pertsonalaren baimenak, eredu jakin baten arabera.
- Bateragarria da Telelaguntzako Zerbitzuarekin, Eguneko Laguntza Zerbitzuarekin, Egu-

neko Zentro pribatuekin eta osasun-eremu pribatuko eta Osakidetzako antzeko beste baliabideekin. Baita beste zerbitzu hauekin ere: aisialdiko jarduerak egiteko zentroak, etxeko Laguntza, Eguneko Laguntza Zerbitzua, Eguneko Zentro publikoa edo Lanerako Zentroa, Egoitzako Laguntza Zerbitzua (16 ordutik beherakoa bada), Egoitzako Laguntza Zerbitzua (16 ordutik beherakoa bada eta Eguneko Laguntza badu), Lanerako Zentroa, foru-sareko edo osasun-zentroetako egoitzako unitate sozio-sanitarioetan sartzea (baldin eta egonaldia 30 egun natural baino luzeagoa ez bada urtean) eta autonomia pertsonala sustatzeko zentroetan sartzea (zentro horiek titularitate publikoko foru-sarean edo Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartu, kontratatu edo itundutakoan badaude).

FEKOOREk Dekretuari buruz duen iritzia

Dekretua onartu aurreko ekarpenetan, laguntza pertsonalerako prestazioaren Dekretu hori hobetzeko proposamenak helarazi zizkion FEKOOREk Gizarte Ekintza Sailari. Gure ustez, proposamen horiek pertsonen bizimodu independentea ahalbidetzeko funtsezkoak dira, eta beste laguntza eta baldintza batzuetarako lagungarriak, gainera.

Garrantzitsuenen artean, iritzi hau dago: **ezein kasutan ez dela kontratatu beharreko gutxieneko ordurik ezarri behar** (Dekretuaren 9. art.), kontuan hartuta norberaren askatasuna eta prestazioaren zenbatekoa kudeatzeko gaitasuna, bizimodu independentea egiteko funtsezko eskubidea aitortzen duenez.

Bateragarritasunen eta bateraezintasunen erregimenari dagokionez (3. art.), **FEKOOREk Egoitza Zerbitzuekin bateragarria izatea defendatzen du, bai sare publikoan, bai sare pribatuan**, eta 24 orduz (65 urtetik beherako pertsonentzat, edota, 65 urteak beteta, onuradunak zirenentzat); izan ere, ez dute bizimodu aktiboa egiteko eguneroko bizitzako jardueretarako laguntzarik.

Gainera, FEKOOREn ustez, funtsezkoa da **laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak Familia Inguruneko Zaintzen Prestazio Ekonomikoarekin (FIZPE) duen bateragarritasuna** arautzea, eta, halaber, zerbitzu bati lotutako prestazio ekonomikoarekin bateragarri egitea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zerrendaren Zirriborroak ezartzen duenaren arabera.

Halaber, **laguntza horren gastua guztiz ordaintzeko beharra (koordainketarik gabe)** adierazi zuen FEKOOREk. Izan ere, gure ustez, Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuen Erantzukizun Publikoko Sarean sartuta dauden laguntza profesional eta ekonomikoko prestazio eta zerbitzu guztiek doakoak izan behar dute onuradunentzat, kontraprestaziorik gabe.

Onuradunak prestazioa jaso ahal izateko baldintzei dagokionez, **5.2.a) artikuluan jasotako adin-irizpidea zabaltzea proposatzen dugu, 3 urte edo gehiago dituztenentzat izan dadin**, gizarteratzea bultzatzeko eta gizarte-zerbitzu garestiagoak eta hain inklusiboak ez direnak erabil ez daitezten.

Gainerako Lurralde Historikoetako pertsonak ere jaso dezakete neurri horren onura eta, hala, Euskadiko lurralde-desorekak murriztuko lirake alderdi horri dagokionez.

Bestalde, prestazioa emateko, 15 eguneko epean **Bizimodu Independenterako Banakako Plana aurkezteko eskakizuna kentzea** ere planteatu zen, eta lan-kontratua soilik izatea beharrezkoa, edota lan horiek egingo dituen enpresaren kontratazio-egiaztapena. Izan ere, gure ustez, Bakarkako Laguntza Planean laguntza pertsonalerako eskubidea aitortzen den unetik eman behar da prestazio ekonomikoa.

FEKOOREk hobekuntza horien alde egiten jarraituko du, ezgaitasun fisikoa eta organikoa duten Bizkaiko pertsonen aukera-berdintasuna eta gizarte-partaidetza bermatzeko.

FEKOOR-EK, DEUSTOTECH- LIFE-K, DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO AISIA ETA EZGAITASUN KATEDRAK ETA KERNET-EK ERREHABILITAZIO- PROIEKTU BERRITZAILEA LANDU DUTE

FEKOOR, Deusto Techekin, Deustuko Unibertsitateko Teknologia Institutuarekin eta Kernet Internet y Nuevas Tecnologías enpresarekin elkarlanean, SHARK proiektuan parte hartzen ari da, aisia-arloko ikerketa eta bio-feedbacka konbinatzen duten tekniken bitartez ezgaitasun fisikoa duten pertsonen errehabilitaziorako laguntza-sistemak lantzeko.

Proiektu teknologiko horrek eremu horretako azken berrikuntzak jasotzen ditu, eta errehabilitazioari lagundu eta hura kontrolatzeko sistema berri bat zehaztu, diseinatu eta lantzen du. Aisiara eta errehabilitaziora bideratutako bideo-jokoak egiteko “middleware-liburutegiak” erabiltzean oinarritzen da, eta erabiltzaileen bizi-konstanteak jasoko ditu denbora errealean.

Zehazkiago, gurpil-aulkiak darabiltzaten ezgaitu fisikoen hobekuntza funtzionala izango da Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean landutako softwarearen helburua. Informazioaren teknologia berrien bitartez eta aisialdi interaktiboko plataformen (Xbox...) bidez, bideo-jokoekiko elkarreteragina bultzatu nahi dute,

aginterik erabili behar izan gabe, sakontasun-kamerei esker (Kinect).

Gainera, erabiltzailearen jarduera fisikoa jasotzeko sentsore biometrikoek aukera emango dute sistemaren jokabidea denbora errealean aldatzeko. Gailua proba aurreratuen fasean dago; FEKOOREko eta talde teknikoko kideek osatutako kontrol-talde bat parte hartzen ari da proba horietan.

FEKOOREk Deusto Techekin eta Kernetekin batera egin du lan, gizarteratzeko garapen teknologikoetara bideratutako jardueretan. Zehazki, TELEREHAB proiektuaren garapenean. Ezgaitasuna eta mugikortasun mugatua duten pertsonen bizi-kalitatea eta autonomia hobetzeko errehabilitazio-tratamendua jasotzea da proiektu horren helburua. Berrikuntza teknologiko horrek aukera ematen du laguntza profesionala jasotzeko eta errehabilitazio-programak etxean egiteko, ordenagailu-pantailaren bitartez.

Errehabilitazio-tratamenduetan, ekimen berritzailea da hori, eta berebiziko garrantzia du bizi-kalitatea hobetzeko eta menpekotasun-egoerak aurreikusi edo arintzeko.



GIZATEK LAGUNTZA- PRODUKTUAK EROSTEKO 2015EKO DIRU-LAGUNTZAK, MENPEKOTASUN- EGOERAN DAUDEN EDO EZGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT

Bizkaiko Foru Aldundiaren 184/2014 Dekretuak (abenduarien 23koak) laguntza-produktuak erosteko diru-laguntzak arautzen ditu beren jarduerak egiteko mugatuta dauden pertsonentzat, laguntza-produktu horien bitartez haien autonomia pertsonala sustatu eta gizarteratzeko, eta menpekotasun- edo ezgaitasun-egoerak sortutako gabeziak arintzeko.

Bestalde, honako hau da Autonomia Pertsonala Sustatzeko Produktuei buruzko Informazioa eta Orientazioa emateko Foru Zerbitzu Publikoaren (GIZATEK) helburua: menpekotasuna edo ezgaitasuna duten pertsonen orientazioa, gizarteratzea eta autonomia pertsonala sustatzea, pertsona horien adina edozein izanik ere. Helburu hori betetzeko, hainbat produktu eta metodo teknologiko erabiltzen ditu, ezgaitasun edo menpekotasun horrek pertsoneri jarduerak egiteko edo herritar gisa parte hartzeko sortzen zaizkien eragozpenak arintze aldera.

GIZATEKek laguntza-produktuen erakusketa iraunkor bat du, eta prestazioak eskuratzeari eta laguntza-produktuak erosi edo maileguan hartzeko diru-laguntzei buruzko aholkularitza ematen du. Halaber, eskatzailearen autonomia pertsonala hobetzeko edozein alderdi teknikori buruzko orientazioa ematen du, egokitasunari buruzko txosten tekniko bat eginez, eta Dekretuan aurreikusitako laguntza ekonomikoak eskatzeko izapideetan laguntzen du.

Gizatek programari buruzko informazioa Bilboko Lersundi kaleko 14 zenbakiko bulegoetan lor daiteke, edota 900 220 002 doako telefonora deituta. Era berean, telefono horretan, laguntza jasotzeko hitzordua eska dezakete interesatuek.

Onuradunak

Laguntza-produktuak jasotzeko diru-laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte interesatuek:

- Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legean (abenduarien 14koa) ezarritako graduen artean, gutxienez II. graduko menpekotasuna aitortuta izatea, edota, gutxienez, %33ko ezgaitasuna edukitzea.
- Nazionalitate espainiarra edota Europar Batasuneko beste edozein Estatukoa izatea; azken kasu horretan, dagokion Foru Dekretuan horretarako ezarri diren baldintza zehatzak bete beharko dira.
- Bizkaiko udalerriren batean erroldatuta egotea.
- Diru-laguntzaren xedea den laguntza-produktuaren Egokitasun Teknikoaren Txostena edukitzea, Gizatekek emana. Txostenak urtebete izango du gehienez ere, eskaera egiten den egunetik kontatzen hasita.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzeko eskatzen bada, eskatzailearen ohiko bizitokia izango da



etxe hori, eta beraren elkarbizitza-unitatearen egoitza. Elkarbizitza iraunkorra gutxienez 2 urteko erroldatze-ziurtagiriaz egiaztatuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagun ditzakeen laguntza-produktuen katalogoa eta dagozkien zenbatekoak Foru Dekretuaren Eranskinean jasota daude, www.bizkaia.net Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren webgunean.

Eskaerak 2015eko urriaren 30 arte egin daitezke. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez ere, eskaera Gizarte Ekintza Sailaren Erregistroan eskaera aurkeztu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Diru-laguntzaren eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen edo haren legezko ordezkariaren eta eskaeran ageri diren gainerako pertsonen NAREN fotokopia.
- Familiaren errolda-ziurtagiria.
- Banku-helbideratzea egiteko dokumentua.
- Gizateken egokitasun-txosten teknikoa.
- Diruz lagundutako produktuen erosketaren jatorrizko faktura aurkeztu beharko da, indarrean dagoen dekretuak ezarritakoa betez eta hark jasotako epean, diru-laguntzaren onuraduna baldin bada.
- Jaso beharreko laguntza kalkulatzeko, hauek hartuko dira kontuan: eskatzailearen diru-sarrerak, haren ezkontidea edo bikotekidea, seme-alaba adingabeak, eta, eskatzailea adingabea baldin bada, harekin bizi diren gurasoak edo tutoreak eta anai-arreba adingabeak. Kalkulu horretan ez dira diru-sarreratzat hartuko Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legean (abenduaren 14koa) araututako prestazio ekonomikoengatik jasotako zenbatekoak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena edo aitortpenak hartuko dira kontuan.
- Formula aplikatutakoan, laguntzaren emaitza gehienez ere laguntzaren %10 bada, emango

den zenbatekoa diruz lagun daitekeen gehienezko kostuaren %10 izango da. Diru-laguntza ez da, ezein kasutan, 3.000 €-tik gorakoa izango.

Diru-laguntza ematen bada, Foru Aginduak hilaletzeko epea ezarriko du, jakinarazpenaren biharamunetik kontaktzen hasita, diruz lagundutako laguntza-produktuaren edo produktuen jatorrizko faktura edo fakturak aurkezteko. Diru-laguntza emateko baldintza izango da hori.

Etixerako irisgarritasuna hobetzeko laguntza-produktuak erosteko ematen diren diru-laguntzen kasuan, 3 hilabetekoa izango da epea.

Jatorrizko faktura edo fakturak aurkezteko epea ez da 2015eko abenduaren 15aren ondoren luzatuko, ezein kasutan.

Gizatek: 900-220-002 • gizatek@bizkaia.eus

ZAINDUZ ZAINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA- PROGRAMA

Fekoor-ek aurten ere ZAINDUZ programaren beste edizio bat eskaini du desgaitasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat, familia-eremuan babesteko eta zaintzeko zereginetan antzematen diren beharrei erantzuteko.

Programatutako ekitaldien helburua desgaitasuna duten edo menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko prozesu zailean dauden zaintzaileak babestea eta laguntzea da.

Zaintzaileek proposatzen dituzten beharrei hobeto erantzuteko, beste edizio batzuekin alderatuta, aurten aldaketa bat egin da, eta horretarako, helburu formatiboa duen eta batez ere au-



EUSKADIKO 20 UDALERRIK BAINO GEHIAGOK ONARTU DUTE ETXEBIZITZARAKO IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ORDENANTZAREN PROPOSAMENA, FEKOOR-EN AHOLKULARITZAZ

tobabes emozionala lantzeko talde bat sortu da, hamabost egunean behin egiten dituzten saioetan dinamizatuta. Azaroaren 20an hasi ziren, eta maiatzaren 25era arte luzatu dira. FEKOOR-en geletan egin dira saioak, Santutxuko Indalecio Prieto etorbidean (Mina del Morro).

Zaintzaile gehienek profila batez ere emakumeak dira (amak edo ezkontideak), laguntza handia behar duten senideak zaintzen urte askotako ibilbidea dutenak.

Ekimen horrekin, FEKOOR-ek zaintzaileen arretarako, babeserako eta laguntzarako erreferentzia programa bat eskaintzen die elkarteko kideei, beren laguntza-eskaera eta - premia espezifikoei erantzuteko, horrela, beren lana egiteko behar dituzten baliabideak izatea eta 'zaintzailearen sindromea' saihestea lortzen da, batzuetan desgaste fisikoa eta mentala, isolamendu soziala eta pertsona horien osasunak okerrera egitea eragiten baitu.

Autobabes eta formakuntza-dinamikak abian jarri zirenetik haietan parte hartu duten pertsonen esperientziak beren ongizatea asko hobetu dela erakutsi digute, bai eta babesten dituzten pertsonen arreta eta haiekiko harremana ere.

Datozen urteotan, programa horretan parte hartzeko interesa duten pertsonak izena eman eta informazioa jaso dezakete FEKOOR-en egoitzan (Blas de Otero, 63, behea – 48014 Bilbo), 94 405 36 66 telefonoan edo fekoor@fekoor.com helbidean.

Euskadiko 20 udalek bat egin dute Fekoorek sustatutako irisgarritasunaren aldeko udal aliantzarekin. Izan ere, etxebizitzetarako irisgarritasuna sustatzeko Toki Ordenantza bat onartu dute, FEKOORek egindako proposamenean oinarrituta. Jabari publikoko okupazioa eta eraikinetan igogailuak edo beselako soluzio teknikoak ezartzeko desjabetzea arautzen ditu proposamen horrek.

Honako udalerririk hauek onartu dute etxebizitzetarako irisgarritasuna sustatzeko araudia: Bilbo, Erandio, Leioa, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Trapaga, Lemoa, Bermeo, Donostia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Deba, Irun, Errenteria, Zarautz, Audio eta Gasteiz.

Eraberritze-lanen hirigintza- eta eraikuntza-zirkunstantziak arautzen ditu araudiak, lan horien helburua batik bat bizitoki kolektiboak diren eraikinetara iristeko baldintzak hobetzea denean.

Ordenantza hori eraikin berrietako lanei edo osorik eraberritzekoei aplikatuko zaie eta, hala, desjabetzeetarako irizpideak eta metodologia xedatzen ditu hirigintzari dagokion legerian jasotzen diren kasuetarako, irisgarritasunari dagokionez indarrean dagoen legeriak aurreikusitakoa betez. Halaber, jabari publikoa okupatzeko aukera kontuan hartuko da, hori beharrezkoa dela egiaztatzen den kasu berezietan.

Eusko Jaurlaritzaren Zoruaeren Legeak eskumena ematen die Udalei desjabetzea egiteko, komunitate-akordio bidez edo epailearen sententzia bidez. Komunitateetan gatazkarik balego, aldeek auzitara jo ez dezaten eta irisgarritasuna lortze aldera adiskidantzazko akordioak egin ditzaten sustatzen du tresna horrek.

Igogailuak, arrapalak edo irisgarritasuna hobetzen duten bestelako elementuak ezartzeko zabalitzen du ordenantzak desjabetzearen eta jabari publikoa okupatzearen bidea.

Dibertsitate funtzionala edo mugikortasun mugatua dutenek beren etxeetara errazago irits daitezten da FEKOORen ordenantza-proposamenaren lehentasuna, haiek herritar gisa ditzuten eskubideak berdintasunez balia ditzaten. Ordenantza horretan, eraikin batean igogailu bat edota irisgarritasuna errazteko beste instalazio bat ezartzea funtsezko zerbitzua da etxebizitzaren funtzionalitatearako. Hala, instalazio hori egiteko behar den azalera ez du esan nahi izango azalera eraikigarria handiagoa izango denik; hortaz, gehienezko eraikigarritasuna agortu duten eraikinetan instalatu ahal izango da.

Horrela, orain arte bideraezinak ziren eraberri-tze-lanak egin ahal izango dira; mugikortasun mugatua duten pertsonak ez dute etxebizitzaz aldatu behar izango, kasurik onenean, eta beren ingurunean bizitzen jarraitu ahal izango dute. FEKOORek neurri hori babesten du, kolektibo horren gizarteratzea eta partaidetza sustatzeko.

Estatuko etxebizitzaren %70ek ez du igogailurik eta, igogailua dutenen %80k eskailerak dituzte haraino iristeko. 2019. urterako, Estatuko komunitate guztiek irisgarriak izan beharko dute.



Ondorio teknikoetarako, Ordenantzaren proposamenaren arabera, desjabetze-proiektuak espresuki identifikatu beharko ditu onuradunak: jabeen Komunitatea edota jabego horizontalari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera lanak egiteko gehiengo nahikoa dutenak.

Desjabetzea edo espazio publikoa okupatzea dakarten proiektu teknikoek egiaztatu beharko dute arazoari beste irtenbideren bat emateko aukerarik ez dagoela, garestiagoa bada ere (neurri-kanpoko kostua ez badu behintzat). Hautatzerakoan, irisgarritasun-arazoei irtenbiderik onena eta obraren bideragarritasunik handiena eskaintzen duen aukerari emango zaio lehentasuna.

Horrelako Ordenantza eredugarria da irisgarritasuna sustatzeko, eta funtsezko tresna Bizkaiko Lurralde Historikorako eta EAE guztirako.

FEKOOR-EK DESGAITASUNA DUTEN BIZKAIKO PERTSONEN PARTE- HARTZERAKO ETA BIZI-KALITATERAKO PLANEAN (2015-2018) PARTE HARTU DU

FEKOOR-ek Bizkaiko Foru Aldundiaren desgaitasuna duten Bizkaiko pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kalitaterako planari buruz (2015-2018) eztabaidatzeko, ekarpenak egiteko eta plana bera egiteko parte hartu du. Desgaitasuna duten Bizkaiko pertsonen eskubideen eta bizi-kalitateraren arretan eta sustapenean parte hartzen dugun pertsonen, erakundeen eta elkarten jarduna hobetzen laguntzeko helburua du planak.

Plan horren helburua da bere jarduerak eta emaitzak pixkanaka komunitatean Parte Har-

tzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredurantz orientatzea, beharrezkoak diren eragile guztien inplikazioarekin. Ibilbide orri hori gizarte-eraldaketarako bere ardatz estrategikoak zabaltzean aplikazio praktiko handiagoa lortzen zentralutuko da, batez ere zeharkakoan diren haiei dagokienez, Foru Aldundiaren ardurapeko gizarte-zerbitzuak etengabe hobetzen jarraitzeko, haien ekitatea, unibertsalitatea eta kalitatea hobetzeko, eta pertsona horien egungo beharretara eta sortzen zaizkien beharretara egokitzeko.

FEKOOR-ek ere desgaitasuna duten Bizkaiko pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kaliterako 2010-2013ko planaren ebaluazioan ere parte hartu zuen, eta orduan jada agerian geratu zen desoreka zegoela plana garatzeko orduan eta ga-beziak zeudela planak proposatzen zuen arreta-ereduari zegozkion jarduera jakin batzuk gauzatzeko orduan.

2015-2018 aldirako erronka nagusiak bost ardatzetan egituratzen dira, eta ezinbestekoa izango da neurri jakin batzuk hartzea honetan lotura zuzena duten eragileen inplikazioarekin (erakunde, administrazio eta botere publiko, eragile ekonomiko eta sozialak, enpresak, ikastetxeak, osasun-etxe eta abarrena), baldintza egokiak sustatzeko desgaitasuna duten Bizkaiko pertsonen komunitatean ahalik eta autonomia, inklusio eta parte-hartze aktibo handiena lor dezaten.

Alde horretatik FEKOOR-ek egindako ekarpenek ezinbestekotzat jo dute autonomia pertsonala eta bizitza independentea sustatzeko zerbitzuak, programak eta laguntzak garatzen jarraitzea, bizi-kalitatearen eta parte-hartzearen ereduarekin bat eta laguntza-premia espezifikoek egokituta, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien aniztasunaren eta heterogeneitatearen arabera.

Datozen urteotarako, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea sustatzeko zerbitzuak eta programak indartzea planteatzen da, hain zuzen ere, zeharkako laguntza gisa asistentzia pertsonala zabalduz eta hobetuz, eta akonpainamendu arineko programetan berrikuntzak ezartzea, horrelako pertsonak haien etxebizitzetan

eta haien inguruan egon daitezten.

Ildo berean, abian jarriko diren neurriak desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea sustatzera bideratuko dira beren autodeterminazioa eta aukeratzeko askatasuna gauzatzeko, eta gizartean parte hartzeko eta eskubideak baliatzeko.

Ildo horretan, desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak eta ahalduntzea hobetzeko programak, zerbitzuak eta jarduerak garatzea aurreikusten da planean, Gizatek zerbitzuaren bidez laguntza-produktuak eta laguntza teknikoak abiarazteko eta berrikuntzak txertatzeko, laguntza-produktuetan berrikuntza sustatuz, bai garapen teknologikoaren bidez, bai teknologia berriak aplikatuz.

Word testuak, horrez gain, pertsona guztientzat irisgarritasun unibertsala, aukera-berdintasuna eta tratu egokia eta desgaitasuna duten pertsonetikiko tratu egokia eta ez diskriminatzailea sustatzeko neurri zehatzagoak dauzka. Horretarako, baliabide komunitarioak izaten laguntzeko Gizarte Ekintza Saila indartzea aurreikusten du, era berean administrazio publikoaren ardurapeko gizarte-zerbitzuen irisgarritasun unibertsalaren baldintzak hobetuz.

Foru Aldundiak duen beste ardatz estrategikotako bat da desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei bideratutako Foru Aldundiaren prestazio eta zerbitzuen unibertsalitatea eta horiek ekitatiboki jasotzeko aukera bermatzea, eta komunitatean parte hartzeko eta bizi-kalitatea edukitzeko eredia ezartzeko bidean aurrera egitea, bai eta sistemaren esku hartzeko ereduaren barruan pertsona ardatz duen eta pertsona kontuan hartzen duen planifikazio-metodologia garatzea ere.

Lehentasunezko jokaera-ildoen artean, baldintza hobeak lortzen eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren defentsan aurrera egin nahi dute, askotariko kolektiboentzat oreka handiagoa lortu nahi da gaur egungo eskari eta eskaintzaren artean, behar berrietara etengabe moldatzeko mekanismo zehatzekin Prestazio eta Zerbitzu Zorro baten bidez. Azken finean, laguntzeko zerbitzu eta programen eskaintza dibertsifikatzean eta

malgutzean aurrera egin nahi dute, betiere pertsonen ezaugarriak, beharrak eta eskaintzak kontuan hartuta.

Neurri nabarmenen artean, inguru komunitarioan eta etxeko bizitza autonomoan espezializatu-tako laguntzarekin etxebizitza-zerbitzuak gartzea dago; autonomia eta bizitza independentea sustatzeko laguntza-programak bateratzea, bai eta komunitatean parte hartzea ere, ohikoagoak diren beste baliabide batzuek gain (egoitzak, eguneko zentroak eta abar); laguntza-beharren menpekotasuna sortzea edo areagotzea saihes-teko laguntza-programetan berrikuntzak egitea; balorazio-sistema, orientabidea, sarbidea, mal-gutasuna eta zerbitzuen arteko bateragarritasuna hobetzea, desgaitasuna duen pertsona bakoitzak, bere eboluzio edo ibilbidearen une bakoitzean, bere beharretara ondoen egokitutako baliabi-deak izan ditzan, era berean, desgaitasuna duten pertsonen beren bizitzan zehar (zahartzaroan, haurtzaroan, gaztaroan, helduaroan) sortzen zaizkien beharretara egokitutako erantzun espezializatua hobetuz.

Foru Aldundiaren 2015eko Desgaitasun Pla-na garatzeko, ekimen sozialeko erakundeen parte-hartzea bultzatuko du gizarte-zerbitzuen sistema bideratzeko eta zabaltzeko prozesuan (zerbitzuen prestazioa, planifikazioa, berrikun-tza, etengabeko hobekuntza...), bai eta dialogo zibila eta ekimen sozialeko erakundeen beste jarduerara azkar batzuk ere.

EKINTZAK ANTOLATZEA

FEKOOR-ek zenbait ekintza egin ditu orain arte 2015. urtean. Horrela, maiatzaren 6an Design For All Jardunaldi Teknikoa antolatu zuen Deustuko Unibertsitateko Ellacur-ía del CRAI aretoan, eta Bizkaiko Foru Aldun-diarekin batera, FEKOOR-ek Etxegoki egitas-morako nazioarteko saria jaso zuen.

Bidarte zentro zibikoan bi tailer egin ziren. Bata, otsailaren 4tik martxoaren 16ra: “*Nire barruan dauden gauza positiboekin konektatzen*”, eta FEKOOR-eko kide emakumeentzat izan zen. Eta, bestea, maiatzaren 7tik uztailearen 25era, mindfulness tailerra, FEKOOR-eko kide gizon eta emakumeentzat.

Abian jarri dugun hitzaldien zikloaren barruan: ekainaren 3an OngiZain izeneko lehen hitzaldia izan zen. Azaroaren 11n beste hitzaldi bat izan-go da, Antxon Arzak eskainiko du, abenturazale eta “*Al filo de lo imposible*” saioko aurkezleak, eta bertara joatera gonbidatzen zaituztegu.

Antolatuko ditugun ekitaldien barruan, FE-KOOR-ek, horrez gain, ikastetxeetan edo formakuntza-zentroetan, unibertsitateetan, izaera publikoko edo pribatuko erakundeetan... hitzal-diak egiteko apustua egin du informazioa emate-ko eta sentsibilizatzeko desgaitasun eta gizarte-inklusioko gaietan... Orue, Altxaga, La Salle... izan dira FEKOOR-ek hitzaldiak egin dituen tokietako batzuk. Sentsibilizatzeko hitzaldiren bat emateko interesa duen ikastetxeren baten berri izanez gero, gure erreferentzia ematea gus-tatuko litzaiguke (fekoor@fekoor.com edo tf: 944053666), gurekin harremanetan jar daitezten.

Bestalde, beste ekintza batzuk egitea dugu pentsatuta. Horregatik, irailaren 20an Arenalen, elkartearen Jaira joateko deitzen dizuegu, baita irailaren 29an ere, FEKOOR-en VIII. Jardunal-dira ere: “Berrikuntza eta laguntza-teknologiak pertsonen zerbitzura”. Gure web orrian ekintza horiei buruzko informazioa emango dugu, bai eta sare sozialetan ere, eta komunikabideei ere emango diegu horien berri.

Azaroaren 3an, EHUren Paraninfoko Baroja aretoan, Emakumea eta Desgaitasuna izeneko gure XII. Foroa izango da. Eta, hilabete geroago, hilaren 3an hau ere, abenduak 3 ospatuko dugu. Espero dugu ekitaldi horretan hutsik ez egitea!

Azkenik, baina ez haatik garrantzi gutxiagokoa, ez ahaztu zuen agendetan apuntatzea “Oztopo-rik gabeko azoka”, urriaren 16tik 18ra BECen izango dena, hain zuzen ere.

GIPUZKOAKO DESGAITU FISIKOEN EGOERARI ETA PREMIEI BURUZKO ELKARTUREN IKERKETA-PROIEKTUA

Gipuzkoako desgaitu fisikoaren egoerari eta premiei buruzko ikerketa-diagnostikoa” egin du elkartuk, giza talde horren bizi-kalitatean eragiten duten alor guztien egoera objektiboki ezagutzeko eta, hartara, Federazioaren aldarrikapenak informazioz hornitzeko. Informazio hori eskuan duela, desgaitu fisikoaren erabateko gizareratzea eta partaidetza sustatzeko politikak, neurriak eta jarrerak eska ditzake Federazioak.

Metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili dira ikerketa hori egiteko. Aztertutako alor guztietako datu kuantifikagarriak jaso dituzte teknikariek metodologia kuantitatiboari esker, hainbat galdetegi betez. Metodologia kualitativoak, berriz, alderdi subjektiboak jaso ditu, hau da, nola bizi dituzten desgaitu fisikoek ikertutako alor bakoitzeko arazoak. Banakako elkarriketak eta eztabaida-taldeak erabili dira informazio hori jasotzeko.

Alderdi hauek aztertu eta balioztatu ditu ikerketa-proiektuak:

- Elkarrizketatuen profil soziodemografikoa.
- Desgaitasuna eta mendekotasuna.
- Desgaituaren ohiko bizilekua eta eguneroko bizimoduko oinarrizko jardueretarako laguntza.
- Hezkuntza/trebakuntza.
- Lan-egoera.
- Egoera ekonomikoa.
- Mugikortasuna sustatzeko eta laguntzeko produktuak.

- Aisialdia eta partaidetza soziala.
- Garraioa.
- Osasunaren zaintza.
- Bazterketa sozialaren diagnostikoa.
- Generoaren eta desgaitasun fisikoaren pertzepzioa.

Jarduera-eremu bakoitzaren azterketa zehatza eginez atzeman dira bizimodu erabat normalizatua egiteko desgaituek dituzten gabezia nagusiak, eta desgaitasun fisikoaren alorreko politika publikoaren lehentasunak zehaztu. Partaidetzaren kultura sustatu, bestalde, ikerketak, eta hori du ezaugarri nagusietako bat. Kultura hori oinarri dela, desgaitu fisikoaren ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatuko da, gizarte integratzaile batean eskubide osoko herritar izateko behar duten lekuaren jabe egin daitezten.

Ikerketaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak desgaituei, dagokien eragile publiko zein pribatuei eta gizarte osoari azalduko dizkio elkartuk, talde horren berdintasun osoa eta erabateko gizareratzea lortzeko borondateak eta konpromisoak bateratzeko.



GIPUZKOAKO DESGAITUEN KONTSEILUA

Gipuzkoako Desgaituen Kontseiluaren maiatzaren 15eko bilera izan zen elkartu. Desgaituen eta desgaitasuna-aren alorreko erakunde eta elkarten partaidetza-foroa da Kontseilua, gizarteko sektore horren ongizaterako politikak eta jarduerak prestatzen eta haien jarraipena egiten laguntzeko sortua.

Desgaituei eragiten dien zenbait gai jorratu ziren bilera hartan, eta amaitu berria den legealdiaren balantzea egin zen. Gizarte Politikako Sailak ezarri eta Desgaituen Kontseiluari aurkeztutako neurri- eta arau-proiektuen laburpena egin zen. Gogotsu jardun zen elkartu proiektu haietan, eta zenbait proposamen eta alegazio aurkeztu zituen:

- **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa (2015-2017).** Positibotzat jo zuen elkartuk Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eskubide subjektiboak orokortu eta sendotzeko planifikazio-tresna bat onartu izana, bai eta Gipuzkoako gizarte-baliabideen sare publikoaren eskaintza premia sozialetara egokitu izana ere; ondoren, zenbait alegazio aurkeztu zituen, desgaituek independenteki bizitzeko baliabideak berresteko eta areagotzeko eskatuz.
- **Mendekotasuna, desgaitasuna eta asaldura mentala artatzeko zentroen erabiltzaileen diru-ekarpenak arautzeko Foru Dekretua.** Hau da Dekretuaren helburua: zehaztea zer diru-ekarpen egin behar duten mendekotasuna, desgaitasuna eta asaldura mentala artatzeko zentroen erabiltzaileek artapenaren

kostuak ordaintzeko; arautzea zerbitzu horiek ordaintzeko erabiltzaileek egin beharreko gehienezko ekarpenak; ezartzea zerbitzuen erabiltzaileen gaitasun ekonomikoa zehazteko irizpideak eta gaitasun ekonomikoaren araberako aplikatu beharreko hobariak; zehaztea erabiltzaileei beren gastuetarako bermatuko zaien gutxieneko zenbatekoa, eta sortzapena, ordainketa eta ordainketaren berandutze partzialak arautzeko irizpideak. Bizilekuak edo egoitzak erabiltzen dituzten desgaituen baliabide ekonomikoak bermatzea zuten helburu elkarturen alegazioek, bizimodu duina izan dezaten, lagun artean. Horrenbestez, ondarea ahalmen ekonomikotik kanpo uztea proposatu zuen, eta erabilera libreko lekuen zenbatekoak igotzea.

- **Independenteki Bizitzeko Laguntza Programa arautzeko Foru Dekretua.** Programa hori indartzea erabaki zuen Federazioak, eta behar den diru-hornidura eskatzea, jende gehiago izan dadin onuradun. Halaber, zenbait proposamen aurkeztu ziren zirriborrarako, kontzeptu eta eskubide subjektibo gisara baliabide hori sendotzeko; horrez gain, beste gai batzuk ere jorratu ziren: programara sartzeko baldintzak, laguntzaren zenbatekoa nola zehaztu, administrazio-prozedura, itzarotzerrenda, laguntzaren bateragarritasuna eta bateraezintasuna, etab.
- **Gipuzkoako desgaituak bizilekuetan eta eguneko zentroetan hartzeko araudia erregulatzen duen Foru Dekretua, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egoitzetan desgaituentzako aldi baterako egonaldi-zerbitzua arautzeko Foru Dekretua.** Hau proposatu zen, nagusiki: sarbide-eskubidea

aitortzea mendekotasun-egoera aitortua ez dutenei eta % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenei, haien egoera pertsonalak edo sozialak direla eta baliabide horiek erabiltzea egoki jotzen bada.

- **Desgaituei laguntzeko txakurren erregistroa sortzeko eta haien ziurtatze-prozedura ezartzeko Foru Dekretua.** Desgaituei laguntzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko txakurrak identifikatzea, ezagutzea eta arautzea du xede foru-dekretu horrek, bai eta haien ziurtagiriak egiteko zer prozedura jarraitu erabakitzea ere. Hau proposatu zuen elkartuk: desgaituei laguntzeko txakurrak erregistratze-ko prozeduran behar diren bermeak ezartzea.

Azken batean, desgaituen eskubideak babesten eta aldarrikatzen jarraitu du elkartuk, haien bi-zi-kalitateari eta eskubideei eragiten dieten alor eta eremu guztietan.

GIPUZKOAN BIDAIARIAK ERREPIDEZ GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARREN ARAUDIA

2015eko otsailaren 25ean argitaratu zen, GAOn, Gipuzkoako lurralde-agintaritzako administrazioetan errepidez bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publiko erregularrak harmonizatze-ko araudia, zeina prestatzen

elkartuk ere jardun duen. Hainbat proposamen aurkeztu ditu elkartuk, hau eskatzeko: irisgarritasun unibertsalaren printzipioa eta desgaitu fisikoek garraio publikoa gainerako herritarrek bezala erabiltzeko eskubidea berma daitezela.

Araudiaren I. Titulua irisgarritasun unibertsalari buruzkoa da, eta gai hauek jorratzen ditu: irisgarritasun-elementuak, irisgarritasunaren eta mugikortasunaren bermea, mugikortasun urriko bidaiariak, desgaituei ibilgailuan gorde beharreko aulkiak eta lekuak, mugikortasun urriko bidaiarien tarifa-erregimena, etab.

Labur adierazita, hauek dira mugikortasun urriko bidaiariei buruzko erabakiak:

- Erosten zaien atetik sar daitezke ibilgailura, bai eta handik irten ere.
- Ibilgailuetara sartzeko, haur-kotxe, haur-aulki eta bizikletekiko lehentasuna izango dute gurpil-aulkian ibiltzen direnek, kasu honetan izan ezik: gurpil-aulkiak sartu baino lehen besteak ibilgailu barruan baldin bazeuden.
- Bi aulki edo bat sar daitezke, gehienez, ibilgailuetara, hauen tamaina zein den.
- Mugikortasun urrikoentzat gordetako aulkietan beste norbait baldin badago eta altxatu nahi ez badu, gidariak agindu behar dio leku hori dagokionari uzteko.
- Laguntzaile bana eraman dezakete itsuek eta gurpil-aulkian ibiltzen direnek. Doan bidaiatuko du laguntzaileak.

Bestalde, arauak betetzen diren aztertze-ko eta ebaluatze-ko, Araudiaren Jarraipen Batzorde bat eratzea erabaki da. Irisgarritasun eta mugikortasun mugatua dutenen bi ordezkari izango ditu batzorde horrek. Lehen bilera egin du jada Batzordeak, non autobusezko garraioaren gabeziak



azaldu dituen elkartuk: geltoki gutxi, ibilgailua belaunikatzeko obligazioa ez betetzea, arrapala edo plataformek gaizki funtzionatzen dutela, komunikazio- eta informazio-sistemen falta, etab. Horrez gain, onartu berria den araudiaren aplikazioaren balorazioa ere egin du elkartuk.

Araudiaren balioespen positiboa egin du elkartuk, aitortzen baitu errepidezko garraio-zerbitzu erregularretarako irisgarritasun orokorrerako lehentasunezko eskubidea; halaber, positibotzat jo du araudia prestatzeko eta haren jarraipena egiteko prozesua, mugikortasun urriko Gipuzkoako herritarren ordezkari gisara jardun baita Federazioa. Gipuzkoan garraio publiko gutziz irisgarria eta integratzailea izateko bidean aurrera egiteko aukera ematen du erregulazio-esparru berri horrek, bai eta gabeziei aurre egitekoa ere. Ugariak eta larriak dira gabeziak, eta ez diete uzten desgaituei garraio publikoaz baliatzen gainerako herritarrei bezala.

KILOMETROAK 2015. GIPUZKOA INKLUSIBOAGO BATEN ALDEKO DEKALOGOA

2015eko Kilometroak bultzatzen duen Gipuzkoa inklusiboago baten aldeko dekalogoaren aurkezpenean izan zen elkartu, ekainaren 18an. Usurbilen egingo da aurtengo Kilometroak festa, urriaren 4an.

Hona zer proposatzen duen dekalogo horrek, zeinaren prestakuntzan ere jardun zuen elkartuk, Gipuzkoako desgaitu fisikoen izenean: integrazioaren eta aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta kultura-aldaketa bat, egungo araudiak agintzen duenetik harago joz eta edozein bazterketa-mota arbuiauz. Proposatzen du, halaber, erabateko integrazioaren aldeko printzipio hauek bermatzea: denontzako irisgarritasuna eta diseinu unibertsala.

Azkenik, proposatzen du desgaituen eskubideei buruzko hitzarmeneko printzipioak hedatzea, integrazioaren eta gizarteratzearen balioa behar bezala ezagutarazteko.

Honenbestez, lanean jarraituko du elkartuk horrelako ekitaldi kultural eta sozial garrantzitsu batek, Kilometroak, denon irisgarritasuna eta erabateko integrazioa berma ditzan.

DONOSTIAKO AUTOBUS-GELTOKI BERRIA EGITEKO PROIEKTUA

Aurrera doaz Donostiako autobus-geltoki berria eraikitzeko lanak. Espero da, honenbestez, urtea amaitu aurretik obrak bukatzea eta geltoki berria inauguratzea.

Funtsezkoa da azpiegitura hori herritarren mugikortasunerako; horregatik, hainbat alegazio aurkeztu ditu elkartuk, irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko printzipioekin bat etor dadin, eta bilerak izan ditu geltokiaren eraikuntzaz arduratzen diren teknikariek eta udaleko ordezkariekin. Proiektu teknikoa aztertu ondoren, besteak beste hobekuntza-proposamen hauek egin ditu Federazioak:

- Geltokiaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza egokiak bermatzea.
- Mugikortasun urriko bidaiariak jaisteko eremu bat jartzea geltokiaren kanpoaldean.
- Tamaina egokikoak izatea ibilgailuetara igotzeko eta haietatik jaisteko eremuak, batez ere plataformak ondo erabiltzeko.
- Aztertzea mugikortasun urriko bidaiarientzat laguntza-zerbitzurik jarri behar litzatekeen.
- Laguntza-produktuak edukitzeko leku bat jartzea.
- Nasetara sartzeko ate automatikoak egotea.
- Irisgarritasun-baldintzak betetzea geltokiko altzariek.
- Oinez hautemateko seinale egokiak jartzea.
- Behar diren audio-sistemak jartzea ikusteko desgaitasuna duten bidaiarientzat, bai geltokian, bai nasetan.

- Egokiro kokatzea, aparkalekuetan, mugikortasun urriko jendearentzako lekuak.
- Egokiro kokatzea mugikortasun urriko jendearentzako komunak.
- Egokitutako komun bat jartzea geltoki ondoko aretoetan (aparkalekua, kafetegia, etab.).

Funtsezko baldintza da elkartuk proposatutako neurriak onartzea, bai eta hurrengo bileretan aurkeztuko direnak ere, desgaituen premiari asetzeko eta herritar guztiei bermatzeko Donostiak hain premiazkoa duen azpiegitura baten berdintasunezko erabilera.

ELKARTU, SARE SOZIALETAN

Duela gutxi berri du bere **webgunea** elkartuk eta, horrez gain, sare sozialetan ere jarduten du, ahalik eta lasterren eta une oro informatzeko eta komunikatzeko desgaitu fisikoekin, erakundeekin eta gizarte osoarekin. Sartu gure **Twitterreko kontuan** (@elkartuGipuzkoa) eta **Facebookeko orrian** (www.facebook.com/elkartu.gipuzkoa).

Hor dituzue elkartuk bultzatzen dituen ekintza guztiak, bai eta interesgarri izan dakizkizuekeen berriak ere. Bestalde, zuen iritzia eta iruzkinak bidal ditzakezue. Egin zaitze **elkarturen jarraitzaile!**



APARKALDI ERREGULATUA, DONOSTIAN, DESGAITUENTZAT GORDETAKO LEKUETAN

2014an hasi zen Donostiako udala desgaituentzat gordetako lekuetako aparkaldi erregulatu aplikatzen eta dagokion tasa kobratzen. Egonezin nabarmena eragin zuen erabaki horrek hiriko eta probintziako gainerako lekuetako mugikortasun urriko jendearen artean, bai eta hirira bisitari etortzen direnen artean ere, gai horri buruz udalerrri gehienek duten araudiarekin alderatuta diskriminatzailetzat jo baitzuten.

Horrenbestez, Donostiako Mugikortasun Saile-ra jo zuen elkartuk, neurri horrekiko Aparkaldi Erregulatuko Zerbitzuaren Ordenantzako erregulazioarekiko desadostasuna adieraztera. Hainbat alegazio aurkeztu zituen Federazioak Ordenantza izapidetzen ari zela, baina atzera bota zituzten denak. Udaleko eta gainerako talde politikoetako Mugikortasun Saileko ordezkariekin zenbait bilera egin ondoren, onartu egin ziren elkarturen proposamenak, zeinak labur azaltzen dizkizuegun:

- Tasarik eta eguneroko denbora-mugarik gabeko aparkaldia mugikortasun urriko jendearentzat gordetako lekuetan.
- 2. tarifa ordaintzen duen eta denbora-mugarik ez duen aparkaldia gainerako TAO lekuetan (erreserbatu gabekoetan).

Mugikortasun urriko jendeak aparkatzeko behar dituen bereizgarriei buruzko Aparkaldi Erre-

gulatuko Zerbitzuaren Ordenantza aldaratzeko dagozkion administrazio-izapideak hasiak ditu jada proposamen horrek. Zuzentze bidean dira, hortaz, mugikortasun urriko jendearen erabateko integrazioa eta gizarteratzea sustatzeko neurriak aplikatzeko hain oztopagarri ziren araudi eta jarduera horiek.

HARTU PARTE DINYPARK PROIEKTU PILOTUAN- MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAKO APARKALEKU PLAZAK KUDEATZEKO ZERBITZUA

Ikartuk parte hartuko du, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Donostiako Udalarekin, Dinycon Sistemas enpresarekin eta Tekniker zentroarekin batera, DINYPARK-PMR esperientzia pilotuan. Proiektuaren helburua da mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku plazak kudeatzeko zerbitzua ematea, behar den momentuan aparkaleku plaza bat izan dezaten.

Zerbitzua proba pilotu gisa egingo da Donostian, eta horretarako, zerbitzu hori emateko hiru aparkaleku gune sortu dira hainbat lekutan. Aparkaleku bakoitzak hainbat plaza ditu proba pilotuan parte hartzen dutenek bakarrik erabiltzeko.

Honako ezaugarri hauek ditu zerbitzuak:

- Denbora errealean jakin daiteke plaza hutsak non dauden, mugikorrek aplikazio baten bidez.

- Plaza libre bat berehala erreserbatzeko aukera.
- Plaza bat astebete aurretik erreserbatzeko aukera.
- Aparkaleku ez baimenduak hautematea.
- Aparkalekuaren iraupena gehienez: 4 ordu (aldez aurretik erreserbatuta bakarrik).
- Aparkalekuaren iraupena gehienez besterik ezean: 2 ordu.
- Identifikazio gailu elektronikoa aparkatzeko laguntzailearekin.

DINYPARK-PMR esperientzia pilotuari buruz argibide gehiago nahi baduzu (aparkalekuak non dauden jakin, zerbitzua erabiltzeko baldintzak, zerbitzuan sarrera nola eskatu eta abar), eta hartan **parte hartu** nahi baduzu, kontsulta ezazu elkarturen web orria (www.elkartu.org).

DONOSTIA 2016, EUROPAKO KULTURA HIRIBURUARE- KIKO LANKIDETZA

Trebakuntza-saio bat eman zien elkartuk, ekainaren 18an, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuko proiektuetako arduradunei eta teknikariei, behar diren neurriak bultzatzen hirirako eta probintzia osorako hain garrantzitsua den kultura-ekimen hori ahalik eta integratzaileena izan dadin eta aniztasuna kontuan izan dezan.

Federazioaren ibilbidea eta jarduera-eremu nagusiak azaldu ondoren, arreta berezia eskaini zitzaizen gai hauei: desgaitasunaren kontzeptu sozialari, eta, desgaitu fisikoen aukera-berdintasuna eta eskubide guztiak bermatzeko, aniztasunarekiko errespetua eta haren aintzatespena tresna gisara erabiltzeari. Aztergai izan

ziren, halaber, irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren printzipioak, eta gizarte-ko baliabideak berdintasunezko baldintzetan erabiltzea oztopatzan duten oztopo fisikoen zenbait adibide aipatu ziren.

Alderdi praktiko bat ere izan zuen saioak, non Donostia 2016ren antolatzaileek aukera izan zuten bertatik bertara jabetzeko honetaz: zenbaterainoko gabeziak izan ditzaketan ingurune edo baliabideek (kulturalak, batez ere), baldin eta ez badira diseinatzen herritar guztiak kontuan hartuta.

Azkenik, partaidetza-dinamikan, proiektu kulturaletan txertatu ziren aurrez jorratutako gai teorikoak eta praktikoak, ager litezkeen gabeziak azaldu ziren, eta denek berdintasunezko baldintzetan parte hartzeko konponbideak proposatu.

Laburbilduz, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburua ekimeneko proiektu kultural guztien izaera integratzailea bermatzeko premia adierazi zuen elkartuk trebakuntza-saio hartan, eta ekimenaren antolatzaileekin elkarlanean jarduteko borondatea adierazi. Izan ere, ekimen horretatik harago doa integrazioaren helburua, eta inspirazio-iturri izan behar du gure hirietan.



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN